

LANTEGIETAKO EUSKARA PLANEN EBALUAZIOAK

Hizneteko Proiektua

Arrasaten 2002ko uztailaren 23an

Xabier Apaolaza Etxeberria

AURKIBIDEA

<u>Aurkibidea</u>	1
<u>1. Sarrera</u>	2
<u>2. BI EBALUAZIOAK: PROZESUA, KONPARAKETA ETA BALIOZKOTASUNA</u>	
4	
<u>2.1. FAGOR AUTOMATIONEN</u>	4
<u>2.1.1. Plana martxan jartzea</u>	4
<u>2.1.2. Enpresaren ezaugarriak labur</u>	4
<u>2.1.3. Euskara Plana martxan jartzea</u>	4
<u>2.1.4. Ebaluazioaren prozesua</u>	5
<u>2.1.5. Ebaluatzeko metodologia</u>	7
<u>2.1.6. Emaitzak</u>	13
<u>2.1.7. Ebaluazio Sistema honen indargune eta ahulguneak</u>	17
<u>2.1.8. Ondorio nagusiak</u>	19
<u>2.2. FAGOR ELEKTRONIKAN</u>	21
<u>2.2.1. Plana martxan jartzea</u>	21
<u>2.2.2. Enpresaren ezaugarriak labur</u>	21
<u>2.2.3. Euskara Plana martxan jartzea</u>	21
<u>2.2.4. Ebaluazioaren prozesua</u>	25
<u>2.2.5. Ebaluatzeko metodologia</u>	27
<u>2.2.6. Emaitzak</u>	35
<u>2.2.7. Ebaluazio sistema honen indargune eta ahulguneak</u>	39
<u>2.2.8. Ondorio nagusiak</u>	40
<u>3. HIRUGARREN EBALUAZIO BAT. KONPARAKETARAKO BESTE</u>	
<u>IKUSPEGIA</u>	43
<u>3.1. EIKA ENPRESAKO EBALUAZIOA TRESNA</u>	43
<u>3.2. ZENBAIT AZALPEN BESTE ENPRESEKIN KONPARATZEAN</u>	48
<u>4. ONDORIO NAGUSIAK</u>	50

1 . SARRERA

Lan edo proiektu honen helburua Fagor Elektronika eta Fagor Automationen hiru urtetako Euskara Planaren Normalizazioa eman ondoren garatutako bi ebaluazio tresnen berri ematea da. Ebaluazio tresna horiek aztertu egingo ditugu, beren on txarren berri emango dugu eta azkenik erabilgarritasunaren araberako balorazio pertsonala egingo da.

Bi lantegiak fisikoki gertu daude, Elektronika arloan lan egiten dute biak, baina oso ezberdinak dira, eta Euskararen Normalizazio Plan hauetan eraman ditugun bideak ere dezente ezberdinak izan dira: Ebaluatzeko modua, Gestio Planak...Gehientsuena bi hitzetan esateko. Horrek guztiak lan honen funtsa osatuko du.

Esan bezala bi lantegiak ezberdinak dira eta horrek bide bat edo beste markatu du. Euskararen Normalizazio Plan hauetan, beste arloetan bezalaxe faktore asko izaten da tartean: Teknikaria bera, dedikazioa, lantegiko euskaldun kopurua eta lantegiaren inplikazioa bera. Beraz testuinguru hau guztia kontutan izanda ikusiko den bezala, bi bide, bi prozesu, bi izaera eta bi emaitza izango ditugu esku artean. Hala ere emaitzak aztertzea ez dugu xede, testimoniozkoak izango dira emaitzak; kasu honetan garrantzitsuagoa litzateke bi tresnen baliagarritasuna aipatzea, eta, jakina, horren ildotik hirugarren ebaluazio tresna baten berri ere emango da.

Analisi hau egituratzerakoan ebaluazio tresnen konparaketa eta baliozkotasuna izango dugu aipagai. Ebaluazio hauek teknikariak egin ditu, EMUN-eko hainbat metodologia erabiliz batetik, baina bestetik lantegiaren izaera kontutan izanda, egokitu egin dira ebaluazioak batera zein bestera. Hori guztia jorratu nahi da lan honetan, tresnen berri eman, baina aldi berean prozesua nola joan den azalduko da; izan ere, prozesu konkretu bat edo beste eramateak emaitzetan ondorioak baititu. Beraz bi faktore horiek dira garrantzitsuak, tresna bera eta ebaluazio prozesuaren deskribapena. Aurkibidean ageri den modura, lan hau egiteko aurrera eramango ditugun urratsak nahiko antzekoak izango dira.

Ebaluazio prozesuari dagokionez, Fagor Elektronikan Gestio Plan luzea egin zen, baina kasu honetan Euskara Batzordearen galba herik ez zuen pasa; bestela esanda Automationen Euskara Batzordeak bestelako protagonismoa izan du. Beraz bakoitzak bere helburuak landu ditu, eta hori guztia ebaluatu egin da. Nola ebaluatu ordea? Fagor Automationen markatutako helburuen ebaluazioa egin dute, eta Elektronikan sistema berri bat aplikatu da Euskararen Presentziaren diagnosi-ebaluazioaren berri emateko. Hasieran formulatutako helburuak ez dira Automationen bezala ebaluatzen, baizik eta ebaluazio orokorra egiten da tresna baten bidez. Beraz lan honen helburua, ebaluazio horien berri eman nahi bai, baina ebaluazio bakoitzaren konparaketa eta baliozkotasuna ere azaldu nahi da.

Bi ebaluazio diren neurrian, edo bestela esanda ebaluatzeko bi era ezberdin izango ditugun neurrian, bakoitzari ikusten dizkiodan indargunean eta ahulguneak ere aipatu nahi nituzke, eta bide horretatik beste hirugarren ebaluazio batekin konparatuko dugu. Eikaren enpresaren kasua aipatuko dugu, eta bertan planteatu zen ebaluazio tresnaren berri emango da.

Azkenik hausnarketa kritiko bat egin nahi nuke ebaluazioen inguruan. Euskararen Normalizazioak bide berriak urratu ditu, eta horietako bat lan munduarena izan da. Hiru urteren ondoren Euskara Plan batek zer nolako fruituak eman dituen ere aztertuko dugu. Nolabait esatearren Plangintza hauen eraginkortasunari buruzko gogoeta bat egiteko asmoa dut.

Beraz, interesgarria izango delakoan, segidan azalduko da Lan Munduan Euskararen Normalizazioaren Plangintza aplikatu ondoren egindako ebaluaketen berri:

2 . BI EBALUAZIOAK : PROZESUA , KONPARAKETA ETA BALIOZKOTASUNA

2.1. FAGOR AUTOMATIONEN

2.1.1. Plana martxan jartzea.

Fagor Automation Kooperatiban 1988ko uda eta 1999ko udaberrian diagnosis eta diseinua egin ostean, 1999ko irailean EMUN Kooperatibako bi Euskara Teknikarik martxan jarri genuen lantegian euskara normalizatzeko hiru urteko inplementazio Plana.

2.1.2. Enpresaren ezaugarriak labur.

Lantegi honek 375 bat langile izango ditu, ekoizpen-makinentzako (tornu, fresatzeko makina, e.a.) osagai elektromekanikoak egiten ditu, hala nola Zenbakizko Kontrolak (CNC), bisualizazio-sistemak (DRO), kaptazio-sistemak eta erregulazio-sistemak. Gero aipatuko den modura, lantegiak ezaugarri hauek izatea garrantzitsua izan da, produktuarekin Euskararen normalizazioan hainbat ekintza aurrera eramanez ahal izan direlako; horien artean Zenbakizko Kontrola eta Bisualizadoreak euskaratzea.

2.1.3. Euskara Plana martxan jartzea.

Arrasateko enpresa honetako Euskal hiztunen kopurua %54koa da, erdizka dakitenak %12 eta erdal hiztunak %33 dira. Euskara Planean 120 bat lagunek parte hartu du, Erabilera Taldeetan nahiz Euskara Eskoletan. Plangintza hau aurrera eramateko, eta lehen aipatu den bezala, bi Teknikari aritu gara jardun horretan, eta horretaz gain bertako Euskara Batzordearen erabateko laguntza eta babesa izan du. Lantegirako diseinu txostena landu ostean, normalizaziorako helburu berriak finkatu ahala, horiek guztiak aztertu izan ditu emaitzekin batera. Euskara Batzordean gainera bertako Fagor Automationgo

lehendakariak parte hartu zuen, nolabait esatearren, lantegiko goi mailako babesak izan du Planak, bai eta Euskara Batzordearena ere.

2.1.4. Ebaluazioaren prozesua.

Planaren ebaluazioari dagokionez, puntu honetan ebaluazioa egiteko beharra nola sortu eta nola egin zen aztertuko dugu. Ebaluazio hauek urtero egin izan dira, lantegi barnean bere Gestio Planaren ebaluazioa egiten den modura. Lantegiko Koordinatzaileak Planaren jarraipen zehatza egin du; bera izan da Euskara Batzordea gidatu duena, eta horren haritik Euskara Batzordean sortu zen ebaluazioa egiteko beharra. Plana aurrera zihoan eta Plan horren emaitzak eta fruituak zeintzuk ziren jakiteko nolabaiteko egarria sortu zen, eta hor eskatu zen Planaren ebaluazioa. Haiek izan dira ebaluazio horren beharra ikusi dutenak, gainera ez Planarena bakarrik baita txosten honetan aipatzen ez den Euskara Eskolena ere. Euskara Batzordeak eta Euskara Koordinatzaileak berebiziko pisua izan dute. Kontutan hartu behar dugu adibidez, Fagor Automatioko Koordinatzailea Fagor Taldeko Euskara Batzordeko buru dela, Euskalanezko lehendakaria ere izan dela eta abar; lan munduko normalizazio prozesuak gertutik jarraitzen ditu.

Horrek guztiak bere eragina izan du Planean zalantzarik gabe. Euskara Batzordea gidatu izan duen Koordinatzaileak pisua izan du Plan honetan, eta EMUN-eko gure lan metodologiaren barnean ebaluazioa egitea aurreikusten bada ere, ebaluazioaren beharra ere hortik etorri da lantegiko Euskara Batzordetik Koordinatzaileak bultzatuta. Beraz beharraren kontzeptua argitzea garrantzitsua dela uste dut. Lantegian Euskararen Normalizazio prozesuan interesa izateak, berarekin dakar ebaluazioaren beharra.

Ebaluazioko informazio pilaketa teknikoa, inkestak pasatzea eta abar Euskara Teknikariek egin dute, baina Euskara Batzordeak hemen ere izugarritzeko pisua izan du. Kontutan izan behar dugu Euskara Batzorde hauetan Zuzendaritza, Kontseilu Errektore, Kontseilu Sozial eta Erabilera Taldeetako partaideak ditugula; gainera Fagor Automatioren kasuan lantegiko Lehendakariak ere Euskara Batzordean parte hartu zuen, halaber Fagor Taldeko Lehendakarien Batzordeko kide ere bada.

Gestio Planean ezarritako helburuak ziren ebaluatzen zirenak, eta Euskara Batzordeak aztertzen zuen Gestio Plan hori, Teknikariak nolabait informazio Teknikoa

ematen zuen, egondako inkesten emaitzak eta abar, baina helburua bete zen ala ez Euskara Batzordeak erabakitzen zuen. Alde horretatik gardentasun handia izan da; Euskara Batzordeak uste bazuen helburu bat ez zela bete hala ispilatzen zuen, eta horixe da geroako adibide modura jarritako orrian ikus daitekeena. Lantegiaren nolabaiteko partehartzea dago ebaluazio honetan; alde batetik ebaluazioaren beharra berak ikusi duelako, eta helburuen betetze maila ere Euskara Batzordeak baloratu duelako. Beraz laburbilduta hau izango litzateke ebaluazio eta lantegiaren artean izan den harremana:

Planak hasera batean diseinu txosteneko helburuak baditu ere, berehala eta lantegiaren oniritziarekin, baina Teknikariaren ekimen edo proposamenez lantegian egiten den Gestio Plan berbera egitea proposatzen da lantegirako: Gestio Plan hau, Teknikariak, langileek eta lantegiak berak ere egiten du, izan ere lantegiaren helburuen artean baitago Zenbakizko Kontrola euskaratzea eta Hezkuntzarako adibidez Zenbakizko Kontrol berezia ateratzea. Azken puntu hau gainera, Euskara Planeko Gestio Planean ez ezik lantegiko Gestio Planean ere sartzen da. Beraz hirukote batek lan egiten du Gestio Plan horren lanketan eta ondorioz, prozesu honetan guztian Euskara Teknikariak halako babes bat izan du, eta jakina honek ere emaitzetan bere eragina izan du. Prozesu bat modu batera edo bestera eramateak emaitzetan ondorioak ditu. Hori beranduago landuko badugu ere, emaitzetako bat lehen aldiz Euskararen historian, beste mugarri bat jartzea izan da, ehunka eskola eta lantegitan erabiltzen den Zenbakizko Kontrola euskaratu egin da. Aurrera begirako Planetan, eta ebaluazio prozesua nolakoa den jakitea garrantzitsua da, horren arabera lantegiaren parte hartze bat egon daitekeelako, eta Teknikaria bere aldetik aritu daitekeelako. Prozesu honetako elkarlanak, ebaluazioaren beharra ikustea, Gestio Plana nork egiten duen ikustea, ebaluazioan zein agentek parte hartzen duten ikustea oso garrantzitsua da, horrek ere bere emaitzak izaten ditu eta aurrera begira ere nondik nora lan egin markatuko digulako. Modu berean lantegiak Euskararen Gestio Planean zerikusia izan duenez lantegiarentzat helburu egokiagoak markatzen dira, helburu zuzenagoak, helburu errealagoak eta erabakietatik ekintzetarako urratsa geldoa bada ere, bide egokia eta babesa ematen duena da hori. Beraz, helburuak jarri eta ebaluatzerako orduan ezinbestekoa da elkarlana.

2.1.5. Ebaluatzeko metodologia:

Euskara Plana aurrera eramateko, hainbat baliabide ditugu. Hasteko eta behin Diseinu txostenean hainbat helburu markatu genituen, baina horrekin batera lantegiko Erabilera Taldeetan (zazpi guztira laurogei bat lagunez osatuta), beste helburu batzuk ere jartzen genituen, norberak bere Departamentuan ikusten zituen beharrak ikusita. Horrela urtero-urtero lantegiko Gestio Plana kontutan hartuta, Euskara Planak ere bere Gestio Plana egin zuen. Gestio Plana hori teknikariak aztertu eta lantzeaz gainera, Euskara Batzordean aurkeztu zen, eta bertan helburu batzuei onespina ematen zitzaaien eta beste batzuk egokitu egiten ziren; guztia kontutan hartuta urteroko Gestio Plana egiten zen: Bertan Arloak aztertzen genituen, hau da Kanpo edo barne harremanetan, irudia, ahozko eta idatzizko harremanak, baliabide informatikoak, jarrera eta sentsibilizazioa, hizkuntza egokitzapena eta hizkuntza irizpideak. Honekin batera zein atal hartuko genuen kontutan: Kanpo errotulazioa, produktua, dokumentuak eta abar. Horri guztiari helburu bat edo batzuk jartzen genizkion hasiera data, bukaera data eta arduradun batekin. Amaitzeko berriz helburu horien betetzeko zein neurri hartuko ziren, hasiera data, bukaera data eta arduradun batekin. Oso labur azalduta hau izaten zen lantzen genuena urtean zehar (eta hiru urteetan zehar) lantegian; Erabilera Taldeen proposamenen bidez, bakarkako lanarekin edo Euskara Batzordearen parte hartzearekin: kontutan izan behar da, zenbait gai potolo samarrak zirela eta Euskara Batzordearen oniritziaz gain, lantegiko beste organo batzuetan ere landu beharreko gaiak zirela: adibidez. Beraz Gestio Plana eskuetan genuela, eta Gestio Plan horrek hainbat helburu zituela, markatutako helburu horiek ebaluatzen genituen, hori zen erabiltzen genuen metodologia.

Hori horrela izanik, gure gaia dugun ebaluatzeko ordua etorri zen :Ebaluazioa Euskara Teknikariok egin genuen, baina ondoren Euskara Batzordean ere aztertzen zen Euskara Batzordeak onartutako Gestio Planaren betetze maila aztertzeko. Beraz egindako Gestio Plan guztia kontutan hartu eta puntuaz puntu, neurriak hartu ziren aztertzen zen, ondoren helburu horiek bete ziren, eta azkenik horren guztiaren inguruko azalpen bat; hau da, egin den, ez den egin eta zergatik. Azken buruan, eta esan bezala ebaluazio honetan haxe da egin duguna: Gestio Planean markatuta genituen helburuak ebaluatu.

Markatutako helburuak ebaluatzeko eta adierazle ugari bete zen ala ez jakiteko hainbat inkesta pasa genituen Erabilera Taldeetan. Hona hemen emaitzak.

KANPO HARREMANAK AHOZ						
NOREKIN	% ZENBAT EUSKARAZ	GEHIAGO (%)				
		Bai, asko	Pixka bat	Gutxi	Ez	Ezin
BEZEROEKIN	66,7	50,0	0,0	0,0	50,0	50,0
HORNITZAILEEKIN	65,1	37,5	37,5	0,0	25,0	11,1
ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREKIN	75,0	50,0	0,0	0,0	50,0	0,0
MCC EDO FAGOR TALDEKO ENPRESEKIN	83,3	33,3	33,3	0,0	33,3	25,0
BATAZBESTE	72,5	54,2	14,2	0,0	31,7	17,2

KANPO HARREMANAK IDATZIZ						
NOREKIN	% ZENBAT EUSKARAZ	GEHIAGO (%)				
		Bai, asko	Pixka bat	Gutxi	Ez	Ezin
BEZEROEKIN	50,0	33,3	33,3	0,0	33,3	0,0
HORNITZAILEEKIN	32,3	30,0	25,0	15,0	30,0	0,0
ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREKIN	39,3	0,0	71,4	0,0	28,6	0,0
MCC EDO FAGOR TALDEKO ENPRESEKIN	70,8	66,7	16,7	0,0	16,7	25,0
BATAZBESTE	48,1	46,0	29,3	3,0	21,7	5,0

BARNE HARREMANAK AHOZ						
NOREKIN	% ZENBAT EUSKARAZ	GEHIAGO (%)				
		Bai, asko	Pixka bat	Gutxi	Ez	Ezin
ERIZAINAREKIN	9,6	0,0	20,0	8,0	72,0	0,0
PERTSONALEKOEKIN	88,1	54,5	22,7	13,6	9,1	29,0
TELEFONISTEKIN	70,3	37,5	41,7	12,5	8,3	20,0
BATAZBESTE	56,0	30,7	28,1	11,4	29,8	16,3

BARNE HARREMANAK AHOZ						
NOREKIN	% ZENBAT EUSKARAZ	GEHIAGO (%)				
		Bai, asko	Pixka bat	Gutxi	Ez	Ezin
TELEFONOA ERANTZUN	94,8	62,5	25,0	6,3	6,3	46,7

BARNE HARREMANAK IDATZIZ						
NOREKIN	% ZENBAT EUSKARAZ	GEHIAGO (%)				
		Bai, asko	Pixka bat	Gutxi	Ez	Ezin
LAN-TXARTELA	87,1	43,8	18,8	6,3	31,3	30,4
KONTSUMO-BALEA	55,7	16,7	0,0	0,0	83,3	25,0
BIDAIA-GASTUEN ORRIA	36,7	20,0	20,0	0,0	60,0	0,0
ESKABIDEAK	61,3	37,5	12,5	0,0	50,0	0,0
POST-IT OHARRAK	70,4	19,0	47,6	19,0	14,3	8,7
AGENDA	67,3	21,4	28,6	35,7	14,3	0,0
NORBERAREN PAPERAK	54,4	25,9	25,9	14,8	33,3	0,0
E-MAILAK	66,7	18,8	50,0	12,5	18,8	11,1
BESTERIK	50,0	50,0	0,0	50,0	0,0	0,0
BATAZBESTE	61,1	28,1	22,6	15,4	33,9	8,4

Alderdi kuantitatiboaz gainera, alderdi kualitatiboan ere landu zen, honako galdera hauekin:

EUSKARAREN EZAGUTZA				
ZER	HOBETO (%)			
	Bai, asko	Pixka bat	Ez	Ez, lehendik nahikoa nekien
IRAKURRI	4,3	91,3	4,3	34,3
IDATZI	7,1	82,1	10,7	20,0
EUSKARAZ	11,5	76,9	11,5	25,7
LANEKO TERMINOLOGIAZ	33,3	57,6	9,1	5,7
BATAZBESTE	14,1	77,0	8,9	21,4

IRITZIA			
ZERI BURUZ	ERANTZUNA (%)		
	Bai	Ez	ED/EE
PLANAREN FUNTZIONAMENDUA EGOKIA	94,4	0,0	5,6
ZURE EDO ENPRESAREN LANA OZTOPATU	2,8	94,4	2,8

INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA EGOKI	88,9	0,0	11,1
---------------------------------------	------	-----	------

IRITZIA					
ZERI BURUZ	ERANTZUNA (%)				
	Bai, asko	Pixka bat	Gutxi	Ez	ED/EE
PLANAREKIN EUSKARAK AURRERA	33,3	58,3	5,6	0,0	2,8

Inkestetako galderak hainbat helburu bete diren ala ez ikusi ahal izateko neurgailuak dira. Baina Erabilera Taldeetako kideez gainera bestelako toki batzuetan ere, behaketa egiten genuen, adibidez Zerbitzu Orokorretakoei inkesta bat pasatzen genien, errotulazioaren eta inprimakien behaketa ere egiten genuen, eta horrekin batera bileren azterketa eta behaketa.

Bestalde motibazio inplikazioaren adierazleak zeintzuk ziren jakiteko, kontutan hartu genituen erabilera taldeetan parte hartzen ari zirenen kopurua eta asistentzia, Euskara eskoletan parte hartzen ari zirenen kopurua eta asistentzia, jendeak egindako proposamenak, egindako itzulpen eta lanpostuko laguntzen kopurua, eta azkenik Euskara Batzordeak onartutako proposamenak. Taula horiek guztiak ez ditugu hemen islatuko luze jo baitezake eskua artean dugun lanak.

Azkenik emaitza horiek guztiak azken ebaluazio koadro batean islatzen dira, guretzako koadro nagusian; Euskararen Gestio Planaren betetze maila adierazten duen ebaluazio orrian.

Horrekin guztiarekin eta goian aipatu den bezalaxe, Gestio Plana kontutan harturik alde batetik helburuak betetzeko neurriak bete ziren aztertzen zen eta bestetik helburuak bete ziren ala ez ziren bete. Hau izan da lantegi honetan erabili dugun metodologia. Euskararen Gestio Planean ispiatzen diren helburu batzuk ditugu lantegia normalizatzeko, batzuk Erabilera Taldeetan lantzen dira, beste batzuk orokorrakoak dira; ondorioz ebaluatzen duguna, horixe da Gestio Planean markatu ditugun helburuak zein neurritan bete diren. Hori Euskara Teknikariek ez ezik Euskara Batzordeak ere baloratzen zuen;

taula honetan ikusiko den modura arlo batzuk bakarrik eta helburu batzuk bakarrik ageri dira; bestela esanda Gestio Planaren ebaluazioa oso luzea da, zortzi bat orri ditu baina laburtze aldera eta tresna ikusteko bakar bat txertatu dut. Hona hemen:

ARLOAK		ATALAK	HELBURUAK	NEURRIAK	NEURRIAK		HELBURUAK			
					HARTU DIREN	AZALPENA	ADIERAZLEA	BETE	AZALPENA	
1. KANPO HARREMANAK	1.1. IRUDIA	1.1.1. KANPO ERROTULAZIOA	1.1.1.1. Kanpo errotulazio guztia gutxienez ele bitara egotea	Kanpo errotulazioaren behaketa egingo da, zer dagoen ikusteko	Bai	Egin da	Hasieran neurketa egingo da zer dagoen jakiteko; urtea amaitu orduko denak euskaraz edo z egon beharko dute	Bai	Ikus-azterketa egin da eta guztia ele biz dago	
				Mantentze-lanen arduradunaren laguntzarekin, dena ele bitara jarriko da	Bai	Egin da				
		1.1.2. PRODUKTUAK	1.1.2.1. 8055 CNCa euskaraz ere ateratzea	Jaurlaritzatik horretarako dirulaguntza lortzen saiatzea	Bai	Egin da, baina ez da lortu nahi zena eta denbora asko galdu da	8055 CNCa euskaraz ere egotea	Bai	CNCa euskaraz badago, baina oraindik ez da komertzializatu eta ez zaio zabalkundea eman, hori 2002an egingo da	
				Pantailako testuen itzulpena egitea	Bai	Egin da, baina beranduago aurrekoaren erruz				
				Itzulitako testuok CNCan integratzea	Bai	Egin da, baina beranduago aurrekoaren erruz				
				Zabalkundea ematea	Ez	2002an egingo da				
			1.1.2.2. Bisualizadoreak euskaraz ere ateratzea	Jaurlaritzatik horretarako dirulaguntza lortzen saiatzea	Bai	Egin da	Bisualizadoreak euskaraz ere egotea	Bai	Zabalkunderik ez zaio eman, baina beste guztia egin da	
				Pantailako testuen itzulpena egitea	Bai	Egin da				
				Itzulitako testuok DROan integratzea	Bai	Egin da				
				Zabalkundea ematea	Ez	Ez da egin				
		1.1.2.3. DNCa euskaraz ere ateratzea	Pantailako testuen itzulpena egitea	Bai	Egin da	DNCa euskaraz ere egotea	Bai	Egin da		
			Itzulitako testuok DNCan integratzea	Bai	Egin da					
		1.1.3. BISITA TXARTELAK	1.1.3.1. Bisita txartelak ele bitara edo hiru eletara egotea, euskara barne dutela, edo bertsio ezberdinak ateratzea, bakoitza hizkuntza baten	Arduradunekin hitz egitea ea posible den ikusteko eta hala bada guztiak itzuli	Bai	Egin da	Bisita txartelen % 40k euskara ere izatea	Ez	Lehen bezala edo antzera jarraitzen dute	
				Arduradunei esan aurrerantzean horrela inprimatzeko	Bai	Egin da				
	1.2. AHOZKO HARREMANAK	1.2.1. TELEFONOZ KANPOKOEKIN	1.2.1.1. Euskal Herrikoak diren enpresa eta erakundeekiko telefonozko harremanetan euskal hiztunek euskara gehiago egitea	Telefonia euskaraz erantzutea bultzatzea erabilera taldeetan	Bai	Erabilera taldeetan landu da	Urte bukaerako inkestako kanpo harremanak ahoz atala: %65en mantentzea Urte bukaerako inkestako telefonia erantzun atala: %82n mantentzea	Bai	%72 eta %95en daude adierazleok	
				Erabilera taldeetakoak konpromisoak hartzera bultzatzea	Bai	Erabilera taldeetan landu da				
				Zerbitzua ematen dutenekin (bankuak, eta abar) zerbitzua euskaraz jaso nahi dela esatea	Ez	Ez da egin				
		1.2.2. ENPRESA BISITAK	1.2.2.1. Euskarazko taldeei bisita euskaraz ematea	Bisiten arduradunari euskarazko taldeen bisitak euskaraz atenditu ditzala komentatzea	Bai	Egin da	Bisitak atenditzen dituenari (Ainhoa Graciari) galdetuko zaio ea egin duen	Ez	Ez da egon euskarazko taldeen bisitarik	
		1.2.3. BISITA KOMERTZIALAK	1.2.3.1. Laneko bisitak ere euskaraz atenditzea, barrukoak eta kanpokoak euskaraz baldin badakite	Erabilera taldeetan lantzea eta konpromisoak hartzea	Bai	Erabilera taldeetan landu da	Urte bukaerako inkestako kanpo harremanak ahoz atala: %65en mantentzea	Bai	Inkestako kanpo harremanak ahoz atala %72n dago	
				Jendeari behar duen trebakuntza ematea	Bai	Erabilera taldeetan landu da				
		1.3. IDATZIZKO HARREMANAK	1.3.1. BISITENTZAKO DOKUMENTAZIOA	1.3.1.1. Euskarazko taldeen bisitei aurkezpena euskaraz ematea	PowerPoint aurkezpena euskarara itzultzea	Bai	Egin da	PowerPoint aurkezpena euskaraz ere egotea	Bai	Egin da
					Arduradunari esatea aldaketak daudenean hauek ere itzultzeko	Bai	Egin da			
	1.3.2. KANPOKOEI BIDALTZEN ZAIZKIEN DOKUMENTU LABURREN EREDUAK		1.3.2.1. Dokumentu hauek ele bitara egotea	Dokumentu eredu hauek guztiak identifikatzea	Ez	Ez da egin	Hasieran dauden inprimaki guztien zerrenda egingo da, urte bukaeran gutxienez %75ek euskara izan beharko dute	Ez	Oso gutxi euskaratu dira	
				Dokumentua euskaraz edo ele bitara badago, berrikustea eta, akatsak baleude, dituen akatsak zuzentzea	Ez	Ez da egin				
				Dokumentua soilik erdaraz badago, ele bietara jartzea	Bai	Egin da				
				Dokumentuaren egile edo arduradunari komentatzea edo ereduren bat uztea, hurrengo bertsioak ongi atera ditzan	Bai	Egin da				
	1.3.3. KANPOKOEI BIDALTZEN ZAIZKIEN DOKUMENTU LABURRAK BETETZEA		1.3.3.1. Euskal hiztunek poliki-poliki euskaraz betetzen joatea	Alfabetatze beharra duten euskal hiztunei alfabetatzea ematea (erabilera taldeetan edo aparteko saioetan)	Bai	Egin da, erabilera taldeen eta alfabetatze-moduluen bidez	Urte bukaerako inkestako kanpo harremanak idatziz atala: %23n mantentzea	Bai	Adierazle hori %48 da orain	
				Erabilera taldeetan terminologia teknikoa ikasten joatea	Bai	Erabilera taldeetan landu da				
				Jendeari hizkuntz baliabideak eskura jartzea (hiztegiak paperean edo ordenagailuan, ordenagailuko zuzentzaile automatikoa, eta abar)	Bai	Egin da				
				Erabilera taldeetan dokumentu horiek lantzeko saioak egitea	Bai	Erabilera taldeetan landu da				
				Erabilera taldeetan konpromisoak hartzea eta jarraipena egitea	Bai	Erabilera taldeetan landu da				
			1.3.3.2. Euskara ikasten ari direnek poliki-poliki euskaraz betetzen joatea	Euskara eskoletan hauen inguruko trebakuntza ematea	Bai	Euskara eskoletan landu da	Ikasleen galdeketako erantzun hori %25 izatea	Bai	Adierazlea %51n dago	
	Jendeari hizkuntz baliabideak eskura jartzea (hiztegiak paperean edo ordenagailuan, ordenagailuko zuzentzaile automatikoa, eta abar)			Bai	Egin da					
	Euskara eskoletan konpromisoak hartzea eta jarraipena egitea			Bai	Euskara eskoletan landu da					
	1.3.4. KANPOKOENGANDIK JASOTZEN DIREN DOKUMENTU LABURRAK		1.3.4.1. Hornitzaileei eta banketxei dokumentu laburrak euskaraz edo ele bietara jasotzea aztertzea	Hornitzaileei dokumentu laburrak euskaraz edo ele bietara eskatzea aztertzea	Ez	Ez da egin	Egin den edo ez	Ez	Ez da egin	
	1.3.5. PLANOAK		1.3.5.1. Planoen kajetinak euskara hutsean edo ele bitara jartzea	Planoen kajetinetako hitzak itzuli eta ereduan sartu	Ez	Ez da egin	Egin den edo ez	Ez	Ez da egin	
	1.3.6. KOOPERATIBEN ERREGISTRORAKO EGITEN DIREN DOKUMENTU OFIZIAL LABURRAK		1.3.6.1. Lehendakariak aurrerantzean dokumentu hauek euskaraz egitea	Lehendakariari dokumentu hauen euskarazko ereduak ematea	Bai	Egin da	Lehendakariari galdetuko zaio ea egin duen edo ez	Ez	Kooperatiben Erregistroan aldaketak direla-eta, orain asko tardatzen dute paperen gestioak egiten, eta askoz gehiago euskaraz badaude (batzutan atzera ere botatzen dituzte); horregatik berriez erdaraz egiten hasi dira	
				Aurrerantzean dokumentu horiek euskaraz betetzea eskatzea	Bai	Egin da				

2.1.6. Emaitzak.

Emaitzak begi bistakoak dira, argi ikus liteke zein helburu bete den eta zein helburu ez den bete, eta modu berean garbi ikusten da ebaluazio hau egin ondoren enpresako zein esparru iritsi garen normalizatzerara eta zer dagoen egiteko. Helburuen betetze maila %50ekoa izan da, baina arlokako banaketa ez da homogenea. Informatikarako helburuen betetze-maila baxua izan da, baina ez da gaizki geratu den bakarra, izan ere, hizkuntz irizpideen atala ere sartuta zegoen, eta arlo horrelako helburuen betetze maila ere oso gaizki dago.

2.1.6.1. LORPEN NABARMENENAK

- * **DROak eta WinDNCa euskaraz ere ateratzea:** nahiko erraz lortutako helburua izan da, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa. DRO modelo guztiak euskarara itzuli ziren eta WinDNC programa ere bai. Ez da zaila izan, ez baitira testu asko ere, baina garrantzitsua da oso produktu horiek euskaraz ere egotea.
- * **8055 CNCa euskaratzea:** Euskarazko lehen Zenbakizko kontrola ateratzea dezenteko lana izan bada ere, 2001eko urte bukaerarako itzulpena egina zegoene. Aurten kaleratu da eta bertan eman zaio promozioa eta zabalkundea. Dagoeneko Bilboko MAKINA Erremintzako bi urtekoan aurkeztu zen, eta interes bizia piztu zuen, euskaraz merkaturatzen den lehena baita. Zabalkunde handiago ere emango zaio Marketin aldetik, Euskararen Normalizazio prozesuan mugarri garrantzitsua baita produktu hau ateratzea. Hainbat Lanbide Eskoletan klaseak euskaraz ematen dituzte, baina praktikarako orduan Kontrolarekin erdaraz jarduten dute; hemendik aurrera euskaraz lan egin ahal izango da esparru honetan ere.
- * **Kanpo errotulazioa:** kanpo errotulazio guztia ele bitara jarri da. Edukiontzietako errotuluak ziren gaztelania hutsez zegoen bakarra, eta horiek ele bitan jarri dira.
- * **Formazioa:** Barne-formazioetako ikastaro bat euskaraz eman da. Komertzialentzat izan zen ikastaroa, produktu berri baten inguruan, eta

komertzialetako langile batek eman zuen. Hala ere arlo honetan asko dago egiteko oraindik.

* **Ahozko harremanak:** euskal hiztunen arteko ahozko harremanetan euskara gehiago egitea lortu da, bai kanpo harremanetan bai barne harremanetan.

* **Harrera Plana:** aurrerantzean langile berriei emango zaien dokumentazioa ele bitan dago, eta gainera Euskara Planari buruzko informazioa ere emango zaie bertan.

* **Batzar Orokorrerako Bilera Informatiboa:** iaz bezala, aurten ere egin da eta arrakastatsua izan da, urtetik urtera aurrera egiten ari da. Hona hemen zenbait datu esanguratsu ehunekoetan eta urteetan hurrenez hurren.

	1999	2000	2001	2002
AHOZ	2	9,5	15,86	12,73
IDATZIZ	0	13,1	14,72	17
DEIA	40	40	40	40
ESKUORRIAK	30	50	50	40

* **Enpresako barne zerbitzuetakoekiko ahozko harremanak:** erizaina, pertsonal saila eta telefonistekiko ahozko harremanetan euskarak gora egitea lortu da.

* **Jende guztiarentzako dokumentu, zerrenda eta oharra:** jende guztiarentzako den informazio-orri gehienak ele bitan ateratzen dira gaur egun.

* **Euskal hiztunek dokumentu eta inprimaki errazetan euskara gehiago biltzea:** helburua lortu dela esan daiteke.

* **Sail arteko buruen bileretako dokumentazioa:** hainbat saileko buruek egiten dituzten bileretan deia eta gai-zerrenda ele bitara bidaltzen da orain

(Produktu-Kontseilua, Negozio-Kontseilua, Kontseilu Errektorea, Kontseilu Soziala, Zuzendaritza Batzordea, Komunikazio Taldea, Segurtasun eta Osasun Batzordea...).

* **Informatikarako irizpideak:** aurrerantzean egiten diren programek cleaniztasun aukera izatea lortu da.

* **Euskara eskolen bidez euskararen ezagutza maila igotzea:** ikasleek ganora handia erakutsi dute eta gainera asko daude hirugarren urtez jarraian ari direnak. Oso gustura gaude euskara eskoletako emaitzekin.

* **Euskara ikasleei erabiltzea bultzatzea:** euskara ikasleei, euskara irakasteaz gain, erabiltzeko aukerak ematen ere saiatzen gara. Idatzizkoari dagokionez, inkestan askok esaten zuten zerbait erabiltzen dutela. Ahozkoari dagokionez, ikasleek beraien inkestan eta euskal hiztunek berean esaten dute gehiago egiten dutela. Ezin da aipatu gabe utzi “Bazkaltegi” proiektua, hainbat euskaldun zahar eta hainbat euskara ikasle astean behin bazkaltzera batera euskara praktikatzera joatean datzana eta oso arrakastatsua gertatzen ari dena.

* **Alfabetatzea:** inkestaren arabera, euskal hiztunen alfabetatze maila berriz ere zerbait igotzea lortu da, erabilera taldeetan eman den trebakuntzaren eta egin den alfabetatze moduluaren bidez.

* **Terminologia ezagutza:** berriz ere inkestaren arabera, euskal hiztunek enpresako terminologia berezitua hobeto ezagutu dezaten lortu da, erabilera taldeetan eman den trebakuntzaren eta langileen eskura jarri diren baliabideen bidez.

2.1.6.2.PLANAK LORTU EZ DITUENAK

* **Bisita txartelak:** kanpo harremanak dituzten langileek beraien bisita txarteletan euskara sartu dezaten ahaleginak egin badira ere, ez da emaitza onik lortu.

* **Inprimakiak:** aurreko urtean enpresa mailako inprimaki gehienak ele bitara jarrita zeuden. 2001ean indarra kanpo inprimakietan eta sailetako inprimakietan egin nahi zen. Saiatu garen arren, ez da gehiegi egin.

- * **Barne errotulazioa:** enpresa barruko errotulu garrantzitsuenak lehenago ere ele bitan zeuden. Aurten indar berezia egin nahi zen armairu eta apaletako errotuluetan, baina ez da erraza eta ez da lortu.
- * **Kooperatiben Erregistroarekiko idatzizko harremanak:** arlo honetan atzerakada eman da, batez ere Kooperatiben Erregistroko langileak eta jarrera aldatu direlako.
- * **Tailerreko hari musikala:** tailerreko hari musikalean euskarazko musika sartzeko ahaleginak alferrikakoak izan dira. Telefonikak ez du euskal musika duen kanalik.
- * **Batzar Orokorra:** ahoz euskaraz egin zena ez zen asko izan, eta gehiena gero gaztelaniaz errepikatu zen bilera asko luzatuz. Hobe da gauza batzuk euskaraz soilik esatea, gardenkiak gaztelaniaz egonik. Idatzizkoan ere ez da asko aurreratu, euskara batere ez zuten orri asko zeuden, eta zutenek ere titulu eta horrelakoak soilik. Hurrengo urteetarako helburua izan beharko litzateke orri guztietan euskara zerbait egotea, tituluak besterik ez badira ere.
- * **Karrera amaierako proiektuak:** gai hau bultzatzen saiatu bagara ere, ez da lortu proiekturik euskaraz aurkezterik. Behintzat proiektua euskaraz egin behar duenari dokumentazioaren gaztelaniarako itzulpena diruz laguntzea lortu da.
- * **Kalitateko dokumentazioa:** Kalitate saileko dokumentazioan euskara gehiago sartzeko helburua jarri genuen, baina ez da ezer lortu.
- * **Informatika programak:** aurrerantzean egingo diren aplikazioek eleaniztasun aukera izan dezaten lortu da, baina oraindik ez dago euskaraz ere dagoen aplikaziorik.
- * **Motibazioa:** enpresaren motibazio maila mantentzea ez da lortu, hainbat adierazlek adierazten duten bezala (erabilera taldeetako partaideak nabarmen jaitsi izana, enpresa mailako proposamenak onartzeko eta aurrera ateratzeko zailtasunak...).

* **Irizpideak:** idatzizkorako hainbat irizpide har zitezen nahi genuen (errotulazioa, inprimakiak eta zabalkunde handiko beste dokumentazioa ele bitara egon beharra), baina ez da lortu.

* **Erabilera taldeak:** erabilera taldeen dinamikak eta partaidetzak nabarmen egin dute behera, eta birplanteatu beharra dago. Esparru honetan, gogoeta sakonak egin behar dira, hasera batean eta Plana hasten denean, Euskara Planak Erabilera Taldeekin indarra hartzen du, eta nolabait ere Talde hauek Planaren ardatz izaten dira, baina gero indarra galtzen dute, eta lantegiaren bestelako inplikazio bat behar dute, ezin baita Planaren pisu handiena haien esku utzi.

2.1.7. Ebaluazio Sistema honen indargune eta ahulguneak:

Indarguneak:

- Helburu bakoitzak kontutan hartzen duen neurri pila eta Gestio Plana Ebaluatzeko moduaren aberastasuna alor guztietan: Ataletan, neurrietan, neurrien betetzean, helburuen adierazleetan, betetze mailan eta azalpenetan.
- Ebaluatzeko orduan erabat kontsekuentea da jarritako helburuen arabera. Horren arabera ebaluatuta dago Plan guztia.
- Enpresan gainerako atalekin egin ohi den bezala, Euskararen kasuan ere Gestio Planaren bidezko ebaluaketa modua formulatzea, hau da, enpresak bere ebaluazioa egiteko erabiltzen duen sistema berarekin egiten da. Horrek guztiak hurbiltasuna sortzen du, azken buruan haien sistema berarekin ebaluatzen baita.
- Euskararen Gestio Planaren betetze maila formulazioak erakusten duen seriotasuna.
- Aurrera begirako beste Gestio Plan egiteko aukera uzten digu helburuen betetze maila ikusita.

- Euskara Batzordeak eta enpresa organoek ebaluazioan (hasieran eta ondoren) izan duten parte hartzea
- Enpresako ia arlo guztiak kontutan hartu izana.
- Ebaluazio kualitatiboa egite aldera, langileen iritzien berri izatea eta Motibazioa azaltzen duten adierazleak landu izana
- Ebaluazio Kualitatiboa eta Kuantitatiboa burutzeko aukera ematen digu tresna honek.
- Zerbitzu Orokorretakoen emaitzak kontutan hartu izana.

Ahulguneak:

- Zenbait emaitzek ikuspegi lantegiaren ikuspegi partziala ematen digute eta ebaluatzeko kasu gehienetan ez da enpresa osoa kontutan hartzen. Beraz, lantegi mailako emaitza orokorrik ez dugu atera gehientsuenetan.
- Erabilera Taldeengan protagonismo handiegia jartzen da Gestio Planean eta ebaluatzerakoan. Horren ondorioz, Ehuneko kopuruek gehientsuenetan iturburua Erabilera taldeetan dute, eta diseinu berri bat egite aldera lantegiaren ikuspegi globala falta da.
- Tresna honen despliege zabala beste enpresetan aplikatzea ez da oso erraza, helburu asko, neurri gehiegi, eta atal gehiegi ditu.
- Horrelako Gestio Plan eta ebaluatzeko moduak eskatzen duen konplexutasuna.

2.1.8. Ondorio nagusiak:

2.1.8.1.EBALUAZIOAREN EMAITZEI DAGOKIENEZ.

Fagor Automazioneko Euskara Planaren ebaluazioa aztertzerakoan hainbat kontu aipatu behar dira. Hasteko eta behin plan hauek oso denbora gutxi daramate; egia da duela

hoge bat urte Euskara Eskolak izan genituela Kooperatibetan, baina Normalizazio Planik ez. Orain hasi ditugun hauetan, borondatezkoak izan dira Plan hauek, eta horrek baditu bere on txarrak. Adibidez Planak martxan jarri dira, baina apenas hasi den Planik Hizkuntza irizpide batzuekin, eta horrek Euskara bigarren mailan lantzearen sentrazioa ekarri du. Hauek dira emaitzei ikusi dizkiedan ezaugarriak garrantzitsuenak:

- Ebaluazioaren emaitzak ez dira izugarriak, baina bai garrantzitsuak; hala ere gehiago egin ez bada planak borondatezkoak delako izan da.
- Gauza positiboak ere lortu dira, CNC-a edo Zenbakiko Kontrola eta DRO-a edo bisualizazioa euskaraz atera da; baina izugarri kostatu da.
- Erabilera Taldeetan gehiegizko sinesgarritasuna jarri dugu, baina hauek behera egin dute. Nekea, Hizkuntz irizpideen falta eta Euskara lan gehigarria izan daitezke besteak beste.
- Aipamenik apenas egin bada ere, 1999tik egunero ordu eta erdiz Euskara ikasten aritu den taldea aipatu nahi nuke. Kooperatiben artean bakarra ez bada bakarretakoa da, horrelako seriotasunarekin 3 urtetako ikasle Plana seriooki burutu duena. 30 lagun inguru euskaldundu da, bakoitza bere mailan bada ere Plan honen ondorioz. Askotan aipatzen dugun MOTIBAZIO-EZAGUTZA-ERABILERA faktorearen barruan, ezagutzak nabarmen gora egin duela esan dezakegu. Inguruan behatuta arrakastatsua dela esan dezaket. Ikasle hauetako askok gainera astean bitan lantegiko euskaldun zaharrekin bazkaltzen dute gero euskara lanean eta kalean erabiltzeko; inkesta batzuk egin ditugu eta emaitzak politak atera dira.

2.1.8.2.EBALUATZEKO SISTEMARI DAGOKIONEZ

- Ebaluatzeiko sistema honen bidez, Gestio Planean markatutako helburuak ebaluatzen dira. Helburuak nire iritziz oso ondo formulatuak daude, eta egiten den despliegea oso aberatsa iruditzen zait; ordu askotako lana dago hor eta ez da erraza Teknikari batek hutsetik hori egitea, oso zaila esango nuke. Ikusten diodan atal negatiboa, goian ahulguneen tokian aipatutakoa da, lortutako emaitza asko

eta asko Erabilera Taldeetara mugatzen dira. Hala ere sistema niri pertsonalki aberatsa iruditzen zait, esan bezala despiege sakona eta zorrotza egiten dela uste dut. Gainera lantegietan hori da erabiltzen duten metodologia haien ebaluazioa egiterakoan; lantegietako despiegea ere antzerakoa izaten da. Ebaluazioa aurkeztu izan dugunean, zein helburu bete den eta zein ez azaltzen duen taula haiei ere asko gustatu zaie. Ondorioz emaitzekin gustura daude, baina oraindik asko dago egiteko; zein bide jarraitu behar dugun datorren Plangintzaldiak esango digu, edozein modutara ere, ebaluazio honek garbi azaltzen digu egoera zein den eta non jarri behar ditugun indarrak.

2.2. FAGOR ELEKTRONIKAN

2.2.1. Plana martxan jartzea.

Fagor Elektronika Kooperatiban 1998ko amaieran eta 1999ko udaberrian diagnosia eta diseinua egin ostean, 1999ko maiatzean Inplementazioa martxan jarri genuen lantegian euskara normalizatzeko hiru urteko inplementazio Plana. Hemen ere EMUN Kooperatiba aritu da normalizazio lanetan, baina Automationen ez bezala, hemen Teknikari bakarra aritu da, dedikazioa txikixeagoa izan baita.

2.2.2. Enpresaren ezaugarriak labur.

Lantegi honek 400 bat langile izango ditu; osagai elektronikoak ekoizten dituen kooperatiba da, eta hiru negozio ditu: Semikonduktoreak, bertan diodoak eta supresore transitorioak ekoizten dira. Seinale Tratamendua, Tele bista, satelite eta lurreko seinalak hartzeko teknologia digitala lantzen da. Azkenik Azpikontratazio Elektronikoa dugu, eta hemen automozioa eta elektratresnen sektorerako zirkuitu elektronikoak fabrikatzen dira.

2.2.3. Euskara Plana martxan jartzea.


Euskal hiztunen kopurua %40koa da, erdizka dakitenak %29 eta erdal hiztunak %40 dira. Euskara Planean 100 bat lagunek parte hartu du, Erabilera Taldeetan nahiz Euskara Eskoletan. Teknikari bakarra aritu da Plangintza hau hasi aurretik bazen Euskara Batzorde bat lantegian, eta Plan honetan funtzio garrantzitsua bete du, hainbat eta hainbat proposamen foro horren bide bideratu baitira.

Aurreko kasuan azaldu bezalaxe, Plana aurrera eramateko hainbat baliabide izan ditugu ohikoa den bezala Diseinu txostenean hainbat helburu markatu genituen, baina horrekin batera lantegiko Erabilera Taldeetan (zazpi guztira hirurogeita hamar bat lagunez osatuta), hainbat helburu markatzen genituen, norberak bere Departamentuan ikusten

zituen beharrak kontutan hartuta Gestio Planeko eredu bat hartu genuen eta bertan txertatu genituen guri egokiak iruditzen zitzaizkigun helburuak. Horrela Gestio Plana egin genuen hainbat atalen azterketarekin: Irudia, harrera, ahozko harremanak, idatzizko harremanak, hizkuntz irizpideak eta dokumentazioa. Elementu horiek guztiak kanpo eta barne harremanetan landu genituen eta bertan aipatutako alor horien egoera zein zen, jarri genuen, helburua zein eta, eta hori euskaratu beharreko urtea. Hona hemen adibidea, eta hasera baten ebaluatzeako asmoa genuena. Ebaluazioa berez hasera batean hau guztia ebaluatzea zen.

Gestio Plan honetan ere orri pareta sartu ditut adibide modura ikusteko, bestela honek ere luke joko bailuke.

FAGOR ELEKTRONIKAKO GESTIO PLANA



Dena gaztelaniaz
Gehiena gaztelaniaz



Bietara



Gehiena euskaraz
Dena euskaraz

KANPO HARREMANK

ARLOA			EGOERA	HELBURUA	URTEA
IRUDIA	KANPO ERROTULAZIOA	Errotulu finkoak			1999
		Bertan egindakoak			1999
	PRENTSAKO IRAGARKIAK	Lanpostuen iragarkiak			1999
	BEZEROENTZAKO DOKUMENTAZIOA	Produktuen etiketak			2002
	ENPRESAKO PAPELERIA	Bisita txartela			2000
		Bisitari txartela			2000
		Papeleria			1999
HARRERA	HARRERAKO TELEFONOA				1999
	NORBERAREN TELEFONOA				1999
	BISITARI TALDEAK				2002
BESTEEKIN	BESTE ENPRESA ETA ERAKUNDEEKIN	Ahoz			1999
		Idatziz			2001

BARNE HARREMANAK- I

IRUDIA	INFORMAZIO ETA NORABIDE ERROTULUAK				1999
	BULEGOETAKO ERROTULAZIOA	Kajoia, mahaiak, zigiluak...			2002
		Egutegiak			2001
		Agendak			2001
	TRESNERIAREN ERROTULAZIOA	Ordenadorez egindako errotuluak			2001
		Lan instrukzioak			2001
		Edari eta janari makinak			1999
	BILERAK	Lan bilerak			1999
		Bilera sozialak			2001
AHOZKO HARREMANAK	BETELAKOAK AHOZKOAK	Telefonoak			1999
		Euskaldunen artean			2000
		Ikasten ari direnekin			2001
		Langileak hautatzeko elkarrizketak			2002
		Langile berrientzako aurkezpenak			2002
		Langileentzako informazio saioak			2002
	PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA	Prestakuntza			2002

Esan bezala, honako elementu hauek hartu genituen kontutan, eta horko helburu asko eta asko landu genituen 1999-2002ko Euskararen Normalizazio Planean. Helburua guztiak lantzea zen, baina arrazoi batzuegatik edo besteengatik ezinezkoa izan zen.

Gainera ebaluatzerako orduan, ez da Gestio Plan honen arabera egin, baizik eta diagnosirako tresnarekin. Gainerakoan helburu hauek ebaluatzea ere, nahiko erraza da, izan ere helburu batzuk hartzen dira kontutan eta urtea, ondoren helburua bete den ikusi eta kito. Hala ere honetan, Automatioko kasuan gertatzen den bezala helburu batzuk ez dira lantegi osoari dagozkionak, Erabilera Taldeetan lantzekoak baizik.

2.2.4. Ebaluazioaren prozesua.

Fagor Elektronikari bi ebaluazio mota egin ditugu, bata urtero aurkeztu genuen txostena, eta bestetik Planaren beraren azken ebaluazioa. Ebaluazioaren beharra Hizkuntz Teknikariaren eskutik etorri zen edo, bestela esanda EMUN Kooperatibari hainbat Plan hirugarren urtera iristen ari zirela eta, ebaluazio tresna bat sortu genuen, eta horixe bera aplikatu genuen Planaren ebaluaziorako. Gainerako urteetan hainbat helbururen edo euskararen Gestio Planaren ebaluazio laburra egiten genuen, helburu horiek Erabilera Taldeetan finkatu ziren, eta ekimena Euskara teknikariarena izan zen. Hala atal honetan hiru urtetan egindako ebaluazioaren berri emango dugu, eta baita prozesu horren berri ere.

Hasera batean Gestio Plan eredu bat egin zen Diseinu Txosteneko helburuekin batera. Helburu hauek Teknikariak jarri zituen Erabilera Taldeetan markatutako helburuekin batera. Euskara Teknikaria helburu horiek guztiak aurrera eramaten saiatu zen, Erabilera Taldeen, Euskara Batzordearen, eta bakarkako lanaren bidez. Hala ere ebaluazioa aurkezteko eta egiteko ekimena Euskara Teknikariaren eskutik etorri zen. Fagor Elektronikako Euskara Batzordean ebaluazioaren emaitzak aurkeztu ziren. Bertatik horren guztiaren berria Zuzendaritza Kontseilu, Kontseilu Errektore eta Kontseilu Sozialera joaten da; horrez gainera Intraneten langile guztiek emaitza horiek ikusteko aukera dute.

Horrek guztiak bere eragina izan du Planean zalantzarik gabe. Euskara Plana gehiago instituzionalizatzeko beharra nabaritu dugu; azken buruan ebaluazioa Teknikariak egin behar

duela esatea instituzionalizazio faltaren beste adibide bat izan da; honek aurrera begira, ebaluazioko emaitzak kontutan hartuta indarrak non jarri behar ditugun azalduko digu, eta gainera argi ikusten dugu hurrengo urratsa hori izan behar dela, Euskara Plana lantegiko beste atal bat gehiago izan behar dela ikusten dugu. Bestela esanda, instituzionalizazio falta horren ondorioz, horrekin emaitza batzuk etorriko dira, eta aurrera begira indarrak non jarri ikusaraziko digu. Adibidez, SAP proiektua. Lantegi osoan zabaldu Makroinformatikako produktu honek izugarritzko zabalkundea du lantegian; bere garaian elkarlanean proiektua aurrera eraman izan balitz ondorio hobeak izango zituzkeen Planarentzat (erdara hutsean dago, eta hala ateratzen ditu fabrikaziorako inprimaki guztiak). Emaitza horien ondorioz, badakigu aurrera begira non lan egin behar dugu.

Materialari dagokionez, ebaluazioko informazio pilaketa teknikoa, inkestak pasatzea eta abar Euskara Teknikariak egin zuen batez ere behaketa bidez; Euskara Batzordeak ez zuen parte hartzerik izan behaketa hauetan, bai aldiz lantegiko langileek kale neurketa bat egin baitzuten.

Euskara Batzordeak emaitzak ebaluatu egin zituen, hau da, emaitzak zer nolakoak izan ziren baloratu zituen, Gestio Planaren jarraipenik egin ez izana eta ebaluazioa beste modu batera Planteatu izanak, horixe ekarri zuen; helburuen betetzea ez zuen Euskara Batzordeak baloratu, Euskara Batzordeak emaitzak egokiak iruditu zitzaizkion hala ez azaldu zuen.

Gestio Plan honetan lantegiak ez du parte hartze handirik izan, eta lantegiaren Gestio Planeko helburuetan ere ez da Euskarari dagokion helbururik sartu, beraz aurrera begirako instituzionalizazioa aipatzen genuenean, horixe adierazi nahi genuen; aurrera begira garrantzitsua izan daiteke Euskara Planaren Gestio Planean lantegian parte hartzea, eta lantegiko Gestio Planean ere Euskarako helburuak sartzea. Honek ebaluazioan ondorioak izango ditu, nolabait ere enpresak Plana bere egingo baitu. Aurrera begira, bestelako elkarlan bat izan behar da Euskara Batzorde, Zuzendaritza eta Teknikariaren artean.

Ondorio zabalagoak emaitzetan azalduko baditugu ere, lantegi eta Planaren arteko lotura zuzenago bat izatea komenigarria litzateke Euskara Planaren mesederako.

2.2.5. Ebaluatzeko metodologia.

Horrela bada, urtez urte hainbat ebaluazio azalpen ematen bagenituen ere (zein helburu bete zen, zein ez eta abar) Planaren beraren ebaluazioa egiteko unea iritsi zen, hiru urtetako Planaren ebaluazioa alegia; eta ordurako EMUN Koop.E-k ebaluatzeko tresna berri atera zuen, eta beraz egokiena hori aplikatzea zela ikusi genuen. Tresna hau Excel bidez eginiko programa bat da, eta gure kasuan Planaren ebaluazioa egiteko balio izan digu, gainera jakinik 1999an egoera zer nolakoa zen, 2002an egoniko eboluzioaren berri ematen digu, eta noski, II.Planaren egiteko ere, egoeraren diagnosia zein den esaten digu, indarrak non jarri behar ditugun, ahuleziak non eta abar.

Ebaluatzeko tresna honen bidez datuak sartzen ditugu, lantegiko arlo nagusietan: Hauek dira arlo nagusiak: KANPO IRUDIA, ENPRESATIK KANPO AHOZKO ERABILERA, ENPRESATIK KANPO IDATZIZKO ERABILERA, BARNE IRUDIA, AHOZKO BARNE ERABILERA, IDATZIZKO BARNE HARREMANAK, eta INFORMATIKA SAILA. Horrez gainera programa honek ahozko kale neurketa egiteko aukera ematen digu orri baten bidez, eta modu berean enpresako hizkuntza gaitasuna kalkulatzeko aukera ematen digu. Azken atal hau ez nuen lantzerik izan, datu batzuk falta zirela eta.

Beraz, esan bezala hainbat arlo lantzen dira, nik esango nuke enpresako alor gehientsuenak ebaluazio sistema honen bidez, izan ere arlo bakoitzak bere atalak ditu eta atal bakoitzak bere azpi atalak, adibidez Enpresatik kanpoko ahozko harremanak neurtzen badugu, bertan “Administrazioarekin ahozko harremana” atalean, azpia atala hauek ditugu: Gobernuarekin, Foru Aldundiekin, Udalekin, Enplegu bulegoekin, Gizarte Segurantzarekin eta abar. Teknikari bakoitzak gainera, egokitu egiten du diagnosirako sistema hau, bere enpresara, hau da, azpi atal batzuk lantegi batean lantzen badira, neurtuko dira baina bestela ez.

Behin gure atalak eta azpia-atalak zeintzuk izango diren erabaki dugunean, geure neurketa egiten hasiko gara. Horretarako zenbat lagin hartuko dugun erabakiko dugu, eta lagin horiek duten ponderazioa erabaki. Gure kasuan ponderazioa markaturik zegoen tresnan bertan, baina lantegiarentzat zuen garrantzia kontutan hartuta Fagor

Elektronikako Euskara Planaren Koordinatzaileak berriz ere ponderatu zituen elementu guztiak banan bana. Hori egin ondoren euskaraz zein kopurutan dagoen jasotzen dugu, adibidez Udalekin harremana azpiatalean, badakigu Fagor Elektronikan bost lagunek harremana dutela Udaletxearekin, baina horietatik bi erdal hiztunak dira, eta beste hiru euskal hiztunak. Bistakoa denez erdal hiztunek erdaraz egingo dute, baina euskal hiztunen artean bik euskaraz egiten dute eta batek erdipurdi, batzuetan euskaraz eta besteetan erdaraz. Beraz 5eko lagin kopurua hartu ondoren eta, esandako datuak txertatu ondoren: %0a dagoen tokian 2ko kopurua jarriko dugu, %50eko kopurua dagoen tokian 1 eta %100eko kasuan 2, gure ebaluaziorako tresnak kalkulu zehatza emango digu, hau da, Fagor Elektronikak Udaletxeekin duen harremanetan % zein kopurutan erabiltzen duen euskara: kasu honetan %50a emango digu, eta horrela egingo dugu enpresako atal guztiekin eta dokumentazio guztiekin. Labur aipatzearren hauek dira lantzen diren atalak.

- Irudian, kanpo errotulazio bere azpiatalekin (ikus adibidea), komunikabideak eta publizitatea, produktua eta bere dokumentuak, enpresako paperak eta harrera.
- Ahozko harremanetan, bezero euskaldunekiko harremana, hornitzaile euskaldunekiko harremana, administrazioarekiko ahozko harremana, eta Finantza erakundeekiko ahozko harremana. Atal hauek, beren azpiatalak dituzte. Adibidez hornitzaileen kasuan, Hornitzaile euskaldunak, MCC , Lagun Aro eta Taldeko enpresekin, bestelako erakunde euskaldunekin eta abar. Gainera tresna honek nire iritziz gauza bat du, bertan ageri ez den beste azpi atal edo bestelako helburu bat txertatu nahi bada, egin liteke, eta noski kendu beste bat ez badagokio. Beraz datuak berak ematen dizu.
- Idatzizko harremanetan, honakoak aztertzen dira: Bezero euskaldunei zuzendutako dokumentuak, eta administrazioari zuzendutako dokumentuak eta Finantza erakundeei zuzendutako dokumentuak. Hauek esan bezala azpi-atalak dituzte, baina ezin ditugu guztiak aipatu oso luze joko bailuke.
- Barne irudian, barne errotulazioa, Batzar orokorra eta informazio bilerak eta megafoniako mezuak.

- Ahozko harremanetan, ahozko erabilera kale neurketa baten bidez, era guztietako lan bilerak eta Formazioa.
- Idatzizko barne harremanei dagokienez, zabalkunde handiko dokumentuak aztertzen dira, ohar tauletakoak, era guztietako e-mail-ak, eta langileentzako orriak beren azpiatalarekin. Ekoizpen eta funtzionamenduaren inguruko dokumentazioari dagokionez, lantegian mugitzen den dokumentazio guztiaren (edo ia guztiaren) azterketa. Atal hau bistakoa denez, oso-oso zabala da.
- Azkenik Informatikako arloa dugu, honako azpiatalekin: Aplikazio informatiko orokorrak, beren azpiatalekin, Aplikazio informatiko bereziak, eta kasu honetan guk gure informazio berezitua sartu behar izan dugu, SAP izena duen programa informatiko erraldoia, eta azkenik Intraneta.
- Kale neurketa bat egiteko aukera bat ere ematen digu tresna honek.
- Bukatzeko, euskararen ezagutza zer nolakoa den kalkulatzeko aukera dugu langile bakoitzarekin.

Ebaluatzeko sistema honek Diagnosirako Eredua du izena, eta gero azalduko ditudan arrazoiengatik oso interesgarria iruditzen zait. Azken buruan programa honetan datuak sartu behar ditugu, eta datuak sartzeko lantegiko hainbat elementu hartzen dira kontutan. Beraz honek orri nagusi batean azaltzen digu zer nolakoa den euskararen erabilera. Eskuineko koadroak bien bitartean ponderazioaren zenbatekoa den adierazten digu. Hona hemen bi adibide Planaren emaitzekin.



EMAITZA OROKORRAK-1999



		Balorea
FAGOR ELEKTRONIKAKO EUSKARAREN ERABILERA		%12
1 Kanpo harremanak		%13
1.1 Irudia		%18
1.1.1	KANPO ERROTULAZIOA (Errotulu nagusia, hesietakoak, informazio e	%28
1.1.2	KOMUNIKABIDEAK ETA PUBLIZITATEA	%10
1.1.3	PRODUKTUA ETA BERE DOKUMENTAZIOA	%7
1.1.4	ENPRESAKO PAPERAK	%1
1.1.5	HARRERA	%44
1.2 Ahozko harremanak		%22
1.2.1	BEZERO EUSKALDUNEKIKO AHOZKO HARREMANAK	%23
1.2.2	HORNITZAILE EUSKALDUNEKIKO AHOZKO HARREMANAK (bilerak	%23
1.2.3	ADMINISTRAZIOAREKIKO AHOZKO HARREMANAK	%20
1.2.4	FINANTZA ERAKUNDEEKIKO AHOZKO HARREMANAK	%23
1.3 Idatzizko harremanak		%2
1.3.1	BEZERO EUSKALDUNEI ZUZENDUTAKO DOKUMENTUAK	%3
1.3.2	HORNITZAILE EUSKALDUNEI ZUZENDUTAKO DOKUMENTUAK	%2
1.3.3	ADMINISTRAZIOARI ZUZENDUTAKO DOKUMENTUAK	%5
1.3.4	FINANTZA ERAKUNDEEI ZUZENDUTAKO DOKUMENTUAK	%0
2 Barne harremanak		%11
2.1 Irudia		%19
2.1.1	BARNE ERROTULAZIOA	%23
2.1.2	BATZAR OROKORRA ETA INFORMAZIO BILERAK	%8
2.2 Ahozko harremanak		%9
2.2.1	AHOZKO ERABILERA	%15
2.2.2	LAN BILERAK	%0
2.2.3	FORMAZIOA	%0
2.3 Idatzizko harremanak		%8
2.3.1	ZABALKUNDE HANDIKO DOKUMENTUAK (e-mailak barne)	%15
2.3.2	EKOIZPEN ETA FUNTZIONAMENDUAREN INGURUKO DOKUMENTU LABUR	%1
2.3.3	EKOIZPEN ETA FUNTZIONAMENDUAREN INGURUKO DOKUMENTU LUZEA	%0
2.4 Informatika		%0
2.4.1	APLIKAZIO INFORMATIKO OROKORRAK	%0
2.4.2	APLIKAZIO INFORMATIKO BEREZIAK	%0
2.4.3	INTRANETA	%0

EMAITZA OROKORRAK-2002

		Balorea	
FAGOR ELEKTRONIKAKO EUSKARAREN ERABILERA		%25	
1 Kanpo harremanak		%25	1
1.1	Irudia	%27	3
1.1.1	KANPO ERROTULAZIOA (Errotulu nagusia, hesietakoak, infor	%34	
1.1.2	KOMUNIKABIDEAK ETA PUBLIZITATEA	%31	
1.1.3	PRODUKTUA ETA BERE DOKUMENTAZIOA	%7	
1.1.4	ENPRESAKO PAPERAK	%7	
1.1.5	HARRERA	%55	
1.2	Ahozko harremanak	%37	1
1.2.1	BEZERO EUSKALDUNEKIKO AHOZKO HARREMANAK	%41	
1.2.2	HORNITZAILE EUSKALDUNEKIKO AHOZKO HARREMANAK	%41	
1.2.3	ADMINISTRAZIOAREKIKO AHOZKO HARREMANAK	%30	
1.2.4	FINANTZA ERAKUNDEEKIKO AHOZKO HARREMANAK	%25	
1.3	Idatzizko harremanak	%17	2
1.3.1	BEZERO EUSKALDUNEI ZUZENDUTAKO DOKUMENTUAK	%9	
1.3.2	HORNITZAILE EUSKALDUNEI ZUZENDUTAKO DOKUMENTU	%19	
1.3.3	ADMINISTRAZIOARI ZUZENDUTAKO DOKUMENTUAK	%19	
1.3.4	FINANTZA ERAKUNDEEI ZUZENDUTAKO DOKUMENTUAK	%24	
2 Barne harremanak		%24	1
2.1	Irudia	%29	3
2.1.1	BARNE ERROTULAZIOA	%33	
2.1.2	BATZAR OROKORRA ETA INFORMAZIO BILERAK	%17	
2.2	Ahozko harremanak	%14	2
2.2.1	AHOZKO ERABILERA	%20	
2.2.2	LAN BILERAK	%4	
2.2.3	FORMAZIOA	%13	
2.3	Idatzizko harremanak	%32	2
2.3.1	ZABALKUNDE HANDIKO DOKUMENTUAK (e-mailak barne)	%49	
2.3.2	EKOIZPEN ETA FUNTZIONAMENDUAREN INGURUKO DOKUMENT	%19	
2.3.3	EKOIZPEN ETA FUNTZIONAMENDUAREN INGURUKO DOKUMENT	%11	
2.4	Informatika	%13	1
2.4.1	APLIKAZIO INFORMATIKO OROKORRAK	%33	
2.4.2	APLIKAZIO INFORMATIKO BEREZIAK	%0	
2.4.3	INTRANETA	%6	

Hona hemen ebaluazioaren zenbait grafiko:





2.2.6. Emaitzak:

Indargune eta ahulguneak gero aztertuko baditugu ere, ehunekoetan garbi adierazita dago zein den egoera eta horretaz gainera, eboluzioa ikus dezakegu eta noski aurrera begira non jarri behar ditugun indarrak. Lehen esan dugun modura, horretako balio digu sistema honek; egoera zein den jakiteko eta aurrera begirako lanak ikusteko.

Ikus daitekeen modura igoera ia bikoitza izan da; hasieran nahiko normalak izaten dira igoera hauek; denborarekin iruditzen zaigu igoera motelagoa izango dela. Erabilera Taldeetan, adibidez, hori garbi ikusten genuen; ahozkoan gora egiteko elkarren artean konpromisoak hartzen zituztenean, haserako igoera izugarrizkoa izaten zen, eta gero dezente geldoagoa.

Hala ere Fagor Automationgo kasuan egin bezala, segidan Planak izan dituen lorpenak eta lortu gabeko emaitzak (3 urte hauetan) aipatuko ditut antzerako egitura jarraituz. Desberdintasun bat dago, Fagor Automationen kasuan markatutako helburuen arabera egina dago; hemen aldiz egitura bera mantenduz Planaren lorpen modura jar litezkeenak, eta lortu gabekoak. Aparteko zerbait esateko badago, egituratik atera naiz eta zerbait gehitu behar zela iruditu bazait, berdin.

2.2.6.1. LORPEN NABARMENENAK

* **Euskara lantegiko eguneroko kulturen zabaltzea:** Lorpen generiko samarra badirudi ere, hau nire iritziz oso garrantzitsua izan da. Euskara lehen arrotza zena, orain eguneroko bihurtu da arlo askotan.

* **Megafoniaren euskalduntzea:** Erabateko lehentasuna du euskarak; ez bakarrik pertsona beti deitzeko abisuetan, baizik eta, gaizki aparkatutako autoen kasuetan, hileta oharretan, greba kasuetan botoen emaitza ematerakoan eta abar. Lehen mezua euskaraz izan ohi da beti. Orain mezu emaile berria hartu dugu, eta mezuak ele bietara ematen ditu, baina aurrekoak lortu zuena lortzea nahi dugu; hau da euskaldunei euskara hutsean (bi aldiz ematen dira mezuak) eta erdaldunei

euskaraz eta gero erdaraz. Garrantzitsua da hau, izan ere, megafonia etengabe entzuten baita lantegian. Lehen euskararen presentzia oso eskasa zen.

* **Kanpo errotulazioa:** kanpo errotulazioa ele bietan dago. Hala ere Fagor Elektronikaren izena Fagor Electrónica. S.Coop. modura erregistraturik dago eta horrek zaildu egiten du errotulazioa euskaraz ere egotea

* **Formazioa:** ISO 14001 ziurtagiria lortzeko formazio ikastaroa euskara hutsean eman da euskaraz dakitenentzat.

* **Ahozko harremanak:** euskal hiztunen arteko ahozko harremanetan euskara gehiago egitea lortu da, bai kanpo harremanetan bai barne harremanetan. Hasera inkesta bidez galdetu genuen lantegian zenbat egiten zuten lehen eta zenbat egiten duten orain. Datu guztiak bildu ondoren lehen %15a egiten zela ondorioztatu genuen, eta orain berriz %27a. Hala ere kale neurketa zehatza egin ostean Fagor Elektronikako ahozko erabilera %20a ateratzen zitegun. Beraz, Planaren haserako datua zehazki zein den ez dugu jakingo. Kopurua hala ere ez da oso ona Arrasaten kale erabilera %28koa denean. Hala ere kontutan hartu behar da Gasteizen bizi den langile ugari ari dela Elektronikan.

* **Harrera Plana:** aurrerantzean langile berriei emango zaien dokumentazioa ele biz dago, eta gainera Euskara Planari buruzko informazioa ere emango zaie bertan.

* **Batzar Orokorrerako Bilera Informatiboa:** Saiotako bat euskaraz egitea lortu genuen 2001ean; arrakastatsua izan zela eta, 2002an bi saio egin ditugu euskaraz, aurrera begira gehiago egingo ditugu.

* **Jende guztiarentzako dokumentu, zerrenda eta oharra:** jende guztiarentzako den informazio-orri gehienak ele bitan ateratzen dira gaur egun.

* **Euskal hiztunek dokumentu eta inprimaki errazetan euskara gehiago biltzea:** helburua lortu dela esan daiteke.

* **Sail arteko buruen bileretako dokumentazioa:** hainbat saileko buruek egiten dituzten bileretan deia eta gai-zerrenda ele bitara bidaltzen da orain (Negozio-Kontseilua, Kontseilu Errektorea, Kontseilu Soziala, Zuzendaritza

Batzordea, Segurtasun eta Osasun Batzordea...). Gainera euskal hiztunez osatutako taldeetan zenbait bilera euskaraz egitea lortu da

* **Intraneta:** Lehen orria euskaratu da, eta enpresako beste edozein Departamentuk duen txoko bera du Euskarak, hau da, Intranetean euskararen adar bat dago, eta bertan hainbat tresna eskuragarri ditu langileak: Planaren informazioa, Euskara Batzordeko aktak, Hiztegiak, Xuxen eta abar.

* **Euskara eskolen bidez euskararen ezagutza maila igotzea:** Gero eta gehiago dira, euskara eskolen bidez euren euskararen ezagutza handitzen ari direnak. Hiru urte hauetan 50 bat lagun aritu dira euskara ikasten, eta horietatik 30ek nahikotasun maila lortu dute.

* **Euskara ikasleei erabiltzea bultzatzea:** Euskara ikasleei, euskara irakasteaz gain, erabiltzeko aukerak ematen ere saiatzen gara. Idatzizkoari dagokionez, inkestan askok esaten zuten zerbait erabiltzen dutela. Ahozkoari dagokionez, ikasleek beraien inkestan eta euskal hiztunek berean esaten dute gehiago egiten dutela. Ezin da aipatu gabe utzi “Bazkaltegi” proiektua, hainbat euskaldun zahar eta hainbat euskara ikasle astean behin bazkaltzera batera euskara praktikatzera joatean datzana eta oso arrakastatsua gertatzen ari dena.

* **Alfabetatzea:** inkestaren arabera, euskal hiztunen alfabetatze maila ere zerbait igotzea lortu da, erabilera taldeetan eman den trebakuntzaren eta egin den alfabetatze moduluaren bidez.

* **Terminologia ezagutza:** Terminologia lanak Erabilera Taldeetan lantzeaz gainera, Fagor Elektronikako hitz gehienak bildu genituen zerrenda batean eta langile gehienek esku jarri genuen.

* **Bisitarien txartelak:** kanpotik datorren edonori bisitari txartela ematen zaio. Bertan guztia ele bitara idatzirik badago ere, hainbat euskarak lehentasuna du.

* **Barne errotulazioa:** enpresa barruko errotulu garrantzitsuenak euskaratzea lortu da. Lehendik batzuk bazeuden, baina oraingoa ia dena euskaraturik dago.

* **Kooperatiben Erregistroarekiko idatzizko harremanak:** Izugarrizko aurrerakada izan da esparru honetan, Gerentziatik hainbat harreman euskara hutsean egiten dira.

* **Batzar Orokorra:** Aurrerapauso handia eman da hemen ere lehen oso gutxi egiten zela kontutan hartzen badugu, azken bi urte hauetan %15etik %21era pasa da. Ez dira izugarrizko emaitzak, baina erabilera gorantz doa.

2.2.6.2.PLANAK LORTU EZ DITUENAK

* **Inprimakiak (SAP):** Makroinformatikako tresna hau erdara hutsean instalatu da lantegi guztian, eta Planarengan oso negatiboki eragin du, alde batetik inprimaki ugari sortzen duelako eta beste aldetik lantegiko gehienek tresna informatiko honekin lan egiten dutelako. Hala ere hau ez genuen helburu modura jarri; ustekabekoa izan zen. Aurrera begira, honek adierazten diguna da enpresak esku-artean dituen proiektuen berri jakitea komeni dela.

* **Barne errotulazioa:** Hainbat karpitetako izenak erdara hutsean daude oraindik. Ez da erraza lan hau, askotan karpeta horiek Pertsonalak baitira, eta borondate mailan geratzen delako; Erabilera Taldeetakoekin landu liteke, baina gainerakoekin zailagoa da

* **Tailerreko hari musikala:** lantegiko hari musikalean euskarazko musika sartzeko ahaleginak alferrikakoak izan dira. Telefonikak ez du euskal musika duen kanalik.

* **Motibazioa:** enpresaren motibazio maila mantentzea ez da lortu. Oraindik lan asko dago egiteko arlo honetan.

* **Irizpideak:** idatzizkorako hainbat irizpide har zitezen nahi genuen (errotulazioa, inprimakiak eta zabalkunde handiko beste dokumentazioa ele bitara egon beharra), baina ez da lortu.

2.2.7. Ebaluazio sistema honen indargune eta ahulgneak.

Indarguneak:

- Lantegi osoko eta arlo guztietarako euskararen erabileraren kopuru zehatza ematen digu.
- Enpresa munduan zenbakiekin neurtzen dituzte, eta beraz tresna egokia da lantegi batean aplikatzeko, zenbaki bidezkoa delako.
- Diagnosirako tresna ere bada, non gauden eta aurrera begira indarrak non jarri behar ditugun adierazten digu; beraz, aurrera begirako lanak zeintzuk izan behar diren argi erakusten digu.
- Tresnak ematen dituen erraztasunak; kopuru zehatzak sartu eta emaitza zehatza ematen digu.
- Lantegi guztietara egokitzeko duen malgutasuna, adierazleak kendu eta berriak jar baitaitezke, ez da tresna zurruna, malgua baizik.
- Tresna honek dituen gainerako atal osagarriak:Kale neurketarako orria, euskararen jakite mailaren orria eta abar.
- Tresna zientifiko eta erabil erreza da
- Lantegian Teknikari aldaketa egonik, informazio zehatza biltzen du tresna honek.
- Tresna erabilerraza da, lana bai baina konplikaziorik apenas ematen du.

Ahulguneak:

- Ebaluazio kualitatiborik ez du tresnak, eta ebaluazio osoago bat egiteko lan gehigarria eskatzen du.
- Motibazioa azaltzen duten adierazlerik ez du.

- Zenbait datu ez dira erabat fidagarriak inkesta bidez eginak direlako, eta auto-ebaluazioak direlako. Adibidez kanpo harremanak bezeroekin atalean.
- Noizean behin egin beharrekoa da, izugarrizko lana ematen baitu.
- Formulazioari dagokionez, tresna berria denez, aplikatzen hasterakoan hasera jarritako helburuak eta ondoren ebaluatzen direnak ez datoz beti bat.

2.2.8. Ondorio nagusiak:

2.2.8.1. EBALUAZIOAREN EMAITZEI DAGOKIENEZ.

Automationen kasuan egiten nuen gogoeta bera egingo nuke, baina hori gauzak errepikatzea litzateke; duela hiru urte Fagor elektronikan %12koa zen euskararen presentzia eta orain %25koa dela atera zaigu. Aurrerapausoa izan da beraz, baina ahulguneetan aipatzen nuen modura ebaluazio kualitatiborik ez du egiten tresna honek, eta beraz bestelako ebaluazio kualitatibo batekin osatu behar izan genuen ebaluazioa. Ebaluazio kualitatibo honetan, Erabilera Taldeek eta Euskara Batzordeak Planari buruz egindako balorazioa sartu genuen. Bertan Euskara Plana eta Hizkuntz Normalkuntzarako Teknikaria baloratu dituzte; oro har balorazioa ona izan da. Gainerakoan Plana borondatezkoa izan da hemen ere, eta beraz, Automationen izaniko arazo bertsuak izan ditugu, eta aipatu bezala, ez ditut berriz errepikatuko. Hona hemen emaitza horiei buruz zenbait ondorio:

- Kasu honetan emaitzak ez dira izugarrizkoak euskararentzat; hala ere baikor egoteko arrazoirik badago, 1999tik 2002 euskararen presentzia bikoitza igo baita; berriz ere erdia igoko balitz, enpresa hein handi batean normalizatu dela esango genuke, baina hori oraingoz zail izango da.
- Fagor Elektronikak bezeroen eta hornitzaileen %5a bakarrik du Euskal Herrian; horrek ondorioz kanpo harremanetan egin dezakegun lana oso txikia da. Emaitzetan horrek ere izan du eraginik; hau da, esaten ari gara Fagor Elektronikan euskararen presentzia %25ekoa dela, baina hornitzaile eta bezero euskaldunak hartu ditugu kontutan; bestela esanda, hornitzaile eta bezero guztiak

kontutan hartuko bagenitu kopuruak behera egingo luke. Hala ere normalizatzeko dugun esparrua hartu dugu kontutan, ez baititugu Txinatar bezeroekin harremanak sekula euskaldunduko!

- Automationen gertatu den bezala, Elektronikan ere Erabilera Taldeetan gehiegizko sinesgarritasuna jarri dugu, baina hauek behera egin dute. Nekea, Hizkuntz irizpideen falta eta Euskara lan gehigarria izatea lehengoa gutxi bazen...
- Ebaluatze modua ez da koherentea izan haserako Planteamenduarekin. Helburu batzuk markatu ziren, baina gero ez da egiten helburu horien jarraipena, baizik eta diagnosirako tresna hartzen da eta lantegi guztiaren azterketa egiten da.
- Kopuruez ari garenez, sistema bera aplikatu den gainerako Kooperatibetan Elektronikaren antzerako emaitza lortu dute; baxuagoa euskaldun kopurua baxua bazen, eta altuagoa euskaldun kopurua altua bazen. Indizeen emaitzak nahiko antzerakoak izan dira.

2.2.8.2.EBALUATZEKO SISTEMARI DAGOKIONEZ

Tresna hau nire iritzirako, eta bere osotasunean hartuta oso aberatsa dela esango nuke; enpresako arlo guztiak hartzen ditu kontutan eta izugarrizko zehaztasunez lantzen ditu.

Esan dudana bezala, ponderazioak berak baditu bereak, baina lantegi bakoitzak berera egokitu dezake, guk horretarako Euskara Planaren Koordinatzailea hautatu genuen, eta berak elementu bakoitzaren garrantziaren arabera ponderatu zituen. Hortik aurrera tresna egokitu egiten da lantegi bakoitzera, eta datuak biltzen ditugu, eta esana dagoen modura, tresnak kopuruak ematen dizkigu.

Nire iritziz Euskara Teknikari batentzat oso tresna baliagarria da; datuak da sartu behar dituen behaketa baten ostean, eta ebaluaziorako tresna ezezik, diagnosirako tresna ere bada. Adibidez, guk edozein enpresatan Plangintza egin nahi dugula, tresna hau oso

baliagarria da azterketa sakon bat egin eta ondoren lantegiarekin adosteko zertan jarriko ditugun datuak eta zein indize igotzea nahi dugun. Horretarako guztirako ez ezik, Gestio Planetarako ere balio digula uste dut.

Hortik abiatuta eta behin datuak esku artean ditugula, haserako egoera zein zen eta oraingoa zein den, argi eta garbi ikusten da. Beste Plan bat egin nahi dela? Bertan ageri dira datu kuantitatibo guztiak. Hala ere goian ere aipatu dut, baina euskarri bat behar du metodo honek nire ustez ebaluazio kualitatiboa lantzeko, edo osatzeko.

Tresna berria dela aipatu dut, eta gerta dakiguke haserako azterketa Indexplarekin egitea adibidez, eta bigarrena Diagnosirako tresnaren bidez; kasu horretan konparatzeko ez liguke gehiegi balioko Indexpla askoz ere sinpleagoa baita Diagnosirako tresnaren ondoan.

3. HIRUGARREN EBALUAZIO BAT. KONPARAKETARAKO BESTE IKUSPEGIA

3.1. EIKA ENPRESAKO EBALUAZIOA TRESNA

Hona hemen EIKA enpresan egindako ebaluazioa. Hasera batean Elektronikarako aplikatu zenarekin alderatuta baditu antzekotasunak. EIKAN Diseinu txostena egin zutenean, hainbat helburu jarri zituzten. Ondoren Plana martxan jartzerakoan, Automationen eta Elektronikaren gertatu zen bezala, helburu gehiago ezarri zituzten. Edozein modutara ere azalpen honetan ez dut sakontzeko asmorik EIKA-ko ebaluazioarekin, izan ere Automation eta Elektronikakoak dagoeneko sakonago aipatuak daude, eta beraz kontraste modura erabiltzeko aipamena egingo dut.

Hau da taularen azalpena: 1999ko zutabearen egoera zer nolakoa zen ikus daiteke koloretan, eta zenbaki baten bidez, eta aldiz 2000ko zutabearen zein aurrerapauso eman diren edo egoera momentu hartan zer nolakoa zen: Hau da, ebaluazio hau 2000. urtean egin da, eta beraz garbi ikus daiteke ordurako egoerak zein aldaketa izan duen, eta hasieran jarri zuten helburua % zenbatean bete den.

Nahiko sinplea da, baina sinpletasun horren barruan, erabilerraza izan daiteke hasberri batentzat. Alor batean helburuak hartzen dira, eta landu nahi diren gaiak; egoera zein den islatzen da, eta lehengoarekin konparatzen da. Horren ildotik “Zer falta da zutabearen”, helburu hori betetzeko zein neurri aurrera eraman behar den ikus dezakegu. Azkenik 2001 eta 2002 zutabeetan diseinu txostenean ezarri zituzten helburuak daude. (Kontutan hartu behar dugu Plangintza gehienak hiru urtetarako egin ohi direla).

1	Dena gaztelaniaz	gehiena gaztelaniaz	-3	zati bat bietara, beste zatia gaztelaniaz	bietara (gehien bat)	gehiena euskaraz	dena euskaraz
	ez dagokio/ ez zegoen	Lehenbailehen egin beharrekoa		Programatutakoa baino lehenago hasi			

Kolore bidez funtzionatzen du eta tresna honek ere atzetik Gestio Plan bat du, hala ere ez gara orain Gestio Plan eta horrelakoetan, ebaluazio tresnetan baizik. Hona hemen tresna:

EIKAN ERABILITAKO TRESNA

Alorra	Helburuak	GAIAK	EGOERA		zer falta da?	2001	2002
			1999	2000			
1.-Kanpo harremanak	1.-Irudia eta errotulazioa	Bisitari txartelak	1	5	%100	Irizpidea idaztea	Katalogoak
		Bisita txartelak	1	1	% 0	MCCko publizitatekoei eskatu	Web orria
		Kanpoko errotuluak	3	3	% 0	Berriak egitea	Dokumentazio teknikoa
		Papeleria	1	1	% 0	Helbidea aldatzean euskaratzea	Ekitaldi publikoak
		Prentsako iragarkiak	1	1	% 0	AZTERTZEA	
	2.-Harrera	Harrerako telefonoa	5	5	% 10	Irizpidea idaztea	
		Erantzungailu automatikoa	1	3	%100	Irizpidea idaztea	
		Langile berriei harrera	2	3	% 50	Irizpidea idaztea	
	3.-Ahozkoa	Inguruko eskola	2	4	% 50	Jarrera hori indartzea	Gainerako bezero, hornitz,
		Ing. administrazioa	2	4	% 50	Jarrera hori indartzea	Finantza erakunde, MCC,
		Ing. finantza erakun	2	4	% 50	Jarrera hori indartzea	Administrazio, Lagun Aro,
		Ing. hornitzaileak	2	4	% 50	Jarrera hori indartzea	Eskola, Ikertegi
	4.-Idatzizkoa	Bezeroak	1	2	% 25	Idatzi luzeak	Bezeroak, MCC,
		Administrazioa.	1	2-3	% 25	idatzi luzeak	Hornitzaileak
		Finantza erakunde	1	4	% 75	Irizpidea idaztea	Osagaien Dibisioa
		Lagun Aro	1	1	% 0	AZTERTZEA	Bestelako erakundeak
2.-	1.-Irudia eta errotulazioa	Kajoiak	2	3	% 75	Irizpidea idaztea	Teknikoak

		Tailerreko tresneria	2	3	% 75	Irizpidea idaztea		
		Fotokopiagailuak	1	2	% 10	AZTERTZEA		
		Errotulu orokorrak	3	3	% 10	Irizpidea idaztea		
		Egutegiak	1	3	% 100	Irizpidea idaztea		
		Agendak	1	3	% 100	Irizpidea idaztea		
		Patrikako telefonoa	1	2	% 10	Jarrera hori indartzea		
		Edari eta janari mak.	1	1	% 0	AZTERTZEA		
		Fitxatzeko makinak	1	1	% 0	AZTERTZEA		
	2.-Ahozkoa	Telefonoz	2	4	% 50	Jarrera hori indartzea	Sail arteko lan bilerak	
		Megafonia	5	5	% 10	Irizpidea idaztea		
		Euskal hiztunen artean	2	4	% 50	Jarrera hori indartzea		
		Erdizka dakitenekin	1	2	% 25	Jarrera hori indartzea		
		Sail barruko lan bilerak	1	2-3	% 25	Jarrera hori indartzea		
		Bilera sozialak	2	2-3	% 25	Jarrera hori indartzea eta irizpideak ezartzea		
	3.-Idatzizkoa	Iragarki taulakoak	2	3	% 75	Irizpidea idaztea	Bilera sozialetarako dokumentazioa	Bilera sozialetako aktak
		Inprimakiak	1	3	% 50	Jarraitu eta irizpidea idaztea	Lan bileretako dokumentazioa	Txostenetan
		Zabalkunde handiko labur	1	2-3	% 25	Jarraitu eta irizpidea idaztea	Prozedura orriak	
		Inprimakiak bete	1	2	% 25	Jarrera hori indartzea	Lan kontratuak	
		Post-it	1	2	% 25	Jarrera hori indartzea		
		mezu elektronikoak	1	2-3	% 50	Jarraitu eta irizpidea idaztea		
		Bilera deiak	2	3	% 50	Jarraitu eta irizpidea idaztea		

		Nominak	2	2-3	% 25	Jarraitu eta irizpidea idaztea		
		Enpresatik jasotako informazioa	1	3	% 50	Jarraitu eta irizpidea idaztea		
		Bileretako dokumentuak	1	2	% 25	Jarraitu eta irizpidea idaztea		
		Sail barruko dokumentu laburrak	1	2-3	% 25	Jarraitu eta irizpidea idaztea		
	4.-Prestakuntza	Barrukoa	2	3	% 25	Jarraitu eta irizpidea idaztea	Kanpokoa	
		Proiektuak	1	2	% 25	Jarraitu eta irizpidea idaztea		
3.-Informatika		Euskarazko orokorrak			% 25	Indar gehiagorekin egin behar	Gaur egungo aplikazioak Intranet	
		Euskarazko laguntzak			% 25	Indar gehiagorekin egin behar		
		Berriak	1	1	% 0	Indar gehiagorekin egin behar		
4.-Jarrera eta sentsibilizazioa		Jarrera indartu				Indar gehiagorekin egin behar	Aldiro-aldiri	Aldiro-aldiri
		Euskara Batzordea sortu			%100			
		Planean zuzenean sartu ez direnak erakarri				Indar gehiagorekin egin behar		
		Denei informazioa				Indar gehiagorekin egin behar		
		Talde dinamika				Indar gehiagorekin egin behar		
		Eskualdeko beste enpresak			%25	Indar gehiagorekin egin behar		
		Jarraipena						
5.-Irizpideak		Harrerako lehen hitza				Irizpidea idaztea	Inprimakiak Informatika	Kontratazioa eta sustapena
		Erantzungailua				Irizpidea idaztea	Dokumentuak	Proiektuetako ikasleak
		megafonia				Irizpidea idaztea	Prestakuntza Bilerak	Kanporako dokumentuak

Errotuluak				Irizpidea idaztea		
Enpresako informazioa ahoz eta idatziz				Irizpidea idaztea		

3.2. ZENBAIT AZALPEN BESTE ENPRESEKIN KONPARATZEAN.

- Elektronika eta EIKAn darabilten tresna nahiko antzekoa da. Diagnosi bat egiten da arloka eta 1999 eta 2001eko egoera zein den ikusarazten digu, edo bestela esanda zein eboluzio izan den. Ebaluatzerako orduan Elektronikan tresna desberdina erabiltzean helburu hori bete den ikusteko bi tresna ezberdinak konparatzen hasi behar gara. Hemen horrelakorik ez da egin behar; edozein modutara ere, EIKA-ko tresnak helburua % zein kopurutan bete den esaten digu, baina hortik ondoriozta al dezakegu zein zen helburua? Hau da, adibidez kanpo harremanetan idatzizkoa lantzea zuten helburu; bezeroen kasuan 1999an dena gaztelaniaz genuen, eta 2000.urtean gehiena gaztelaniaz. Horren ildotik esaten zaiguna da, helburua %25ean bete dela, baina helburua zein zen jakiterik ba al dugu? %25ean betetzea zer da, bietara? bietara(gehien bat)?...
- Helburuen despliega egin eta hori ebaluatzerakoan Automationgoa eta Elektronikan erabili diren tresnak aberatsagoak iruditzen zaizkit, askoz arlo gehiago kontutan hartzen dituzte. Bestela esanda, elementu gutxiago aztertzen direla uste dut EIKA-ren kasuan, edo orokorregia geratzen dela ebaluatzeke orduan. Adibidez Ahozkoa aztertzean uste dut zehatzago ebaluatzen dutela Automation eta Elektronikak.
- Aldiz, lehen bistaizoa zer egin den eta zer egin den eta zer egiteko dagoen azaltzeko, tresna sinple bezain egokia dela uste dut. Askotan txosten luzeak egiteko ohitura izan ohi dugu, eta horrelako tresnatxo batek argi eta garbi adierazten digu egoeraren diagnosa zein den, eta zer dagoen egiteko. Elektronikakoa ere uste dut bide horretatik doala; Automationgoa ere argia dela uste dut.
- Tresna sinplea eta argia dela esango nuke; lantzean behin neurketa egin tresna honek ere argi erakusten digu, zein egoeratan gauden, eta zer dugun egiteko. Nik hala ere lehen esan dudan moduan despliega zabalagoa egingo nioke.

- Euskararen presentziaren berri ez digu ematen, ez tresna honek ez eta Automationgoak ere. Lehen bistaizoaren garrantziaz hitz egiten nuen, eta euskararen presentzia lantegi honetan %X da esatea garrantzitsua dela uste dut.
- Automationgoari ikusten diodan zehaztasun falta hemen ere nabari dut, eta alde horretatik Elektronikan erabili den diagnosirako tresna askoz ere garrantzitsuagoa iruditzen zait. Ahozkoan inguruko hornitzaileak aipatzen ditugunean, eta orain gehien bat euskaraz egiten dela esatean, zer esaten ari gara Erabilera taldeetakoek gehiago egiten dutela; eta gainerako langileek ba al dakigu zenbat egiten duten? Hau da, ba al dakigu % zein kopurutan egiten den euskaraz inguruko hornitzaileekin? Ehuneko datu kuantitatiboa ematea egokiagoa ikusten dut.
- Zer falta da atalean, irizpideak ezartzearen helburua ikusi dut. Oso garrantzitsua dela uste dut hori; agian garrantzitsuena. Elektronika eta Automationen ebaluatu eta egoera zein den esaten zaigu, baina irizpideen gaia gehiago jorratu behar zela uste dut, hemen uneoro ageri da.
- Hainbat arlo eta helburu gaur egun duten garrantzia ikusirik sakonago ebaluatu eta aztertu behar direla uste dut. Informatikaz ari naiz. Izugarrizko garrantzia hartu dute teknologia berriek, eta hor ere ebaluatzerakoan despliege sakonagoa egin behar dela uste dut.
- Tresna hau hasieran erabiltzeko baliagarria da, sinplea eta lehen begiradan garbi ikusten delako, hala ere esan bezala gehiago sakontzea komeni da.

4 . ONDORIO NAGUSIAK

Lan honen helburua ebaluatzeko tresnen berri ematea da. Euskararen Normalizazioan, eta are gehiago lan mundukoa normalizazioan duela gutxi hasi gara, hastapenak besterik ez dira orain artekoak, eta ebaluazio kontutuan oro har hankamotz gabiltzalakoan nago; lan honen xedea bide berri batzuk hor ere badaudela azaltzen da.

Aipatuko lantegietako ebaluazioaren emaitzak ezin dira kuantitatiboki edo kualitatiboki ia konparatu tresna oso ezberdinak direlako, (zer esanik ez hirugarren adibidearekin) baina ebaluatzeko zein tresna mota dauden, eta bakoitzaren on txarrak zeintzuk diren jakiteko balio duela uste dut.

Diagnosirako tresna, lan askoren ondoren EMUNeko aditu batzuk egindako tresna dugu, eta berria dugun neurrian etengabe hobetzen eta aberasten doana esango nuke; bere horretan tresna nahiko osoa dela iruditzen zait, horrelako tresna osorik lan mundurako nik neuk ez dut ezagutzen; badaude Indexpalarena, Diagnosirako egungo garapen Teknikoak ere aztertu ditugu 13. Irakasgaiari "Neur-kareletik, hizkuntza egoeraren popatik brankara" tresna ezagutzeko aukera ere izan dugu, baina esan bezala lan mundurako eta enpresa mundurako Diagnosirako tresna gaur egun ezinbestekoa iruditzen zait.

Hala ere diagnosi tresnari Indexplarekiko antzekotasun batzuk ikusi dizkiot: Indexpal ere aplikazio informatiko bat da, eta enpresa baten normalizazio maila nolakoa den esaten digu eta izandako bilakaeraren berri ere ematen digu; edozein modutara ere 75 gorako langile kopurua dagoen enpresetan Indexpla ez dirudi oso erabilgarria denik, Planak ez direlako erraz egokitzen, Diagnosirako Tresnarekin bai.

Ez nahiz berriro indar-gune eta ahulguneak aipatzen hasiko; tresna osoa esaten nuen, eta halaxe da, kualitatiboki bestelako datu batzuk eskatzen baditu ere, guk enpresa munduan lan egiten dugu, eta enpresa munduan horrela datu kuantitatiboak ematea eskertu egiten dute, horretan ohituak daude, eta halaxe esan digute gainera. Elektronikaren kasuan hasera hasieratik, hoberena diagnosirako tresnarekin lan egitea izango zatekeen, baina aipatu bezala tresna berria dugu, eta dena ezin!

Lana eskatzen du tresna honek, adierazle bakoitza hartu eta neurtu egin behar da; adierazleak berez asko dira eta gainera, egokitu ahala berriak sartzeko joera ere izaten da. Gainera adierazle horien laginak banan bana neurtu behar izaten dira. Beraz lana neketsua da, baina bere fruituak ematen dituena. Hori bai, hilabeteen behin ezin da neurketa hau egin, ez eta gutxiago ere! Noizbehinka egin beharreko azterketa dugu honakoa, enpresa bat bere osotasunean (edo ia osotasunean) behatzea izugarritzko lana da, jende askorengana jo behar da.

Tresna erabilerraza da, eta oso erraz hasera eta ondorengo egoera islatzen diguna. Elektronikaren kasuan %25ean gaudela dio, beste erdia igo beharko dugu normalizatu nahi badugu, momentuz hori bigarren Plangintza baterako utziko beharko ditugu lan horiek; enpresak bigarren Plan bat nahi du eta beraz badakigu non jarri behar ditugun indarrak aurrera begira. Baliagarria da edozein Euskara Teknikarientzat, Plangintza bat hasterakoan, eta Plangintza bat ebaluatzerakoan. Adibidez, lantegi batean Plangintza bat hasi behar badugu, datuak bildu eta azterketa egitea da kontua; egoeraren berri emango digu tresnak. Hala ere, ez da magikoa, gero bestelako lanak ere egin behar baititu Teknikariak eta Euskara Batzordeak. Tresna honen bidez helburuak jartzeko eta ebaluatzeko aukera ere izan dezakegu.

Indexpla, nioen bezala hor dago, baina aberatsagoa iruditzen zait Diagnosirako Tresna. Lantegietako Normalizazio Planetan sartuta gaudenontzat, beharrezko tresna dugula uste dut, baina esan bezala hasera hasieratik horrekin hasten bagara askoz hobeto. Alabaina, hasieran diagnosia egiteko tresna bat erabili genuen, eta orain beste honekin egin dugu ebaluazioa; pena da desfase hori izatea.

Automationen ikusi ahal izan dugun tresnan, nik neuk helburuak egoki formulatuak daudela ikusten dut, baina helburu horiek ebaluatzen dira ondoren. Funtzionatzeko beste modu bat da; enpresetan ere hala egiten dute, helburu batzuk hartu eta horiek ebaluatu. Horren haritik, orain Plangintza bat egitea egokituko balitzait bi tresnak erabiliko nituzke; segidan azalduko dut.

Bi tresnak osagarriak direla uste dut. Haserako azterketa egiteko diagnosirako tresna erabiliko nuke, horrek enpresaren atal bakoitzeko ehunekoa emango liguke eta, hortik aurrera atal bakoitza kontutan hartuta Gestio Plan bat egingo nuke Euskara Planarentzat,

eta enpresak ondo ikusiko balu Enpresako Gestio Planaren barnean Euskara Planeko hainbat helburu sartuko nituzke, hori ere funtsezkoa baita, hots Euskara Planen instituzionalizazioa; gainerakoan zail izango da gure Planak arrakastaz aurrera ateratzea. Beraz Diagnosirako tresna eskutan dugula normalizatzeko beharrik behinenak non dauden detektatu, eta enpresaren parte hartzeaz eta laguntzaz (Departamentu Buru, Negozio Buru eta abar..) helburuak non jarri aztertuko nuke. Hori guztia enpresako organo eta Euskara Batzordearekin aztertu ondoren dator Hizkuntz Normalizatzailearen lana, helburu horiek betetzeko arduradunak jarri eta Plana Dinamizatu. Plana amaitu ondoren berriro ere tresna pasa beharko litzateke, edo aztertu beharko litzateke, zertan bete ditugun gure helburuak eta bertan ez; diagnosirako tresnarekin gainera helburuak markatzea ez zait larregi konplikatua iruditzen. Adibidez, bezeroekin kanpo harremanetan ahoz %4an gaude, eta helburua %20an jarriko dugu lantegi guztian. Horren arabera, Diagnosirako tresnak azalduko digu helburua zein puntutaraino bete dugun, eta noski helburu berriak non jarriko ditugun aurrera begira. Diagnosirako tresna du izen formala, baina galbahea ere nik neuk bataiatuko nuke kaleko hizkeran erabiltzeko.

Horretara jotzea ere ez litzateke txarra izango; nik uste dut orain hainbat tresna ezberdinekin funtzionatzen dugula; eredu egoki bat erdiestea, lorpen garrantzitsua litzateke Euskararentzat. Momentuz diagnosirako tresnak begi kolpe batean adierazten digu egoera zein den, eta zein bilakaera eman den.

Beraz eta lan honekin amaitze aldera, euskararen normalizazioa zoritxarrez urrun dugu, baina zorionez hasiak gara buru belarri lan honetan. Lan mundurako, bi erreminta hauek sakonxeago aztertu ondoren edozein Euskara Teknikarirentzat baliagarriak direla uste dut, eta agian hurrengo pausua esperientzia pilotu bat lantzea izango litzateke, baina nik ez dut inongo dudarik; diagnosirako tresna eta Gestio Planarekin lan egiteko aukera apartak egon daitezke; hala ere Euskara Plan hauek enpresak bere egin behar ditu aurrera begira, lan arloko (Kalitatea, I+G, Logistika...) beste edozein atalen moduko integrazioa behar du euskarak lan munduan normalizatuko bada; hau da, helburuen formulazio egoki batek, Gestio Plan egoki eta ebaluazio txukun batek, atzetik enpresan txertaturik egotea suposatu behar du, eta lortutako helburuak enpresan betirako sustraiturik egotea; gainerakoan epe motzerako lanetan ari gara.

Gero eta enpresa gehiago ari da Euskara Planetan sartzen, baina oraindik normalizazio honek esparru zabalagoak hartu behar ditu. Lan mundua normalizatzeko aldera eta aurrera begira tresna eraginkorrak, enpresek Plan hauek bere egitea, eta erakundeek laguntza ere beharko dute, eta denborarekin zergatik ez Quebec eta Katalunian bezala derrigortze minimo batzuk ere ezartzea, asko dago oraindik egiteko, baina urrats horiek ematen badira Plan eraginkorrak izango ditugu lan munduko Euskararen Normalizazioan.